



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya



## Tasa judizialen igoera



¿IMAGINAS QUÉ  
HARÁS CON EL  
**60%**  
QUE TE AHORRAS  
CUANDO COMPRAS  
NUESTROS  
EBOOKS?



## Librería Virtual EL DERECHO

La respuesta a todas tus preguntas

Contenidos actualizados con las últimas reformas legales

Contenidos disponibles inmediatamente

Autores de prestigio como los de nuestra colección Tribunal Supremo

Abierto las 24 horas, los 365 días del año



EL DERECHO

[www.elderecho.com/publicaciones](http://www.elderecho.com/publicaciones)

**M**artxoan tasa judicialak berrikusten dituen lege-aurreproiektua onetsi zen, abokatuen kolektiboari kontsultarik egin gabe. Justizia ministroak komunikabideei esandakoaren arabera, abokatuen iritzia kontuan hartuko zen Justizia Administrazioan funtsezko aldaketak egiteko.

Baina harreman eta kontsulta horiek ez dira egon. Hori dela eta, Ministroen Kontseiluak hartutako erabakiak defentsa-eskubide sakratuari kalte egin diezairoke. Izan ere, ezarritako tasa judizialek, funtsik gabeko gehiegizko auziak murriztu beharrean, auziak planteatzeko aukera emango die baliabide ekonomiko gehien dutenei, eta egoera makurragoa bizi dutenei justiziarako sarbidea murriztuko zaie. Horrek, zalantzarik gabe, herritarren eskubide-berdintasunaren printzipioari kalte egiten dio.

Izurra da esatea tasen berrikuspen honek ahalmen ekonomiko txikiagoa dutenei kalterik egingo ez diela eta babes judizial eragingarria egikartzeko oztopoa izango ez dela, ez baitzaie doako justiziaren onuradunei aplikatuko. Baina lanbide honetan aritzen garen guztiok badakigu pertsona askok eskubide hori ez dutela eskatutako baremo ekonomikoak justu-justu gaintitzen dituztelako, baina baldintzatuta egongo dira errekurso batzuk jartzekoan, tasen zenbatekoa kontuan hartuta. Hori neurri txikiagoan gertatuko zaie diru-sarrera handiagoak dituztenei.

“

**Izurra da esatea tasen berrikuspen honek ahalmen ekonomiko txikiagoa dutenei kalterik egingo ez diela**

”

Auzilariaren egoera ekonomikoak eragina du auzi bat planteatzekoan, gure ordainsariak ordaindu behar direlako. Baina, gainera, bezeroak kaleratu badituzte eta lehen auzialdiko epaiarekin ados ez badaude, 500 euro ordaintzea planteatu behar dute erregru-errekurso legitimoa planteatzeko. Tasa horrek askoz eragin handiagoa izango du langilearengan enpresan baino, edo enpresa kaudimendunen (aireko bidaien enpresak, aseguru-konpainiak, bankuak, etab.) aurka errekursoak aurkeztu nahi dituztenengan.

Abokatuok gai horiek lehen eskutik ezagutzen ditugu, guk egikaritzen baitugu defentsa-eskubidea, guk kudeatzen baititugu orientazio juridikoko zerbitzuak, gu aritzen baikara auzilariarekin, eta guk ezagutzen baititugu ezin hobeto justizia-administrazioaren xehetasunak. Hala ere, aurreproiektu hau garatzerakoan alde batera utzi gaituzte, eta gainera, aurreproiektua oso ona dela agertu nahi da, gure ordainsariak tasak baino garestiagoak direla esanez, arreta eta kexak desbideratzeko, justiziarako sarbidearen prezioa gogoan izan beharrean gure kolektibo gogoan izateko. Hala ere, oraintsuko ikerketa soziologikoen erakutsi dute gizarteak hobeto baloratzen dituela abokatuak politikariak baino, eta herritarren kexak justiziaren galdotasunaren eta bitartekorik ez izatearen ingurukoak izaten direla. Hain zuzen ere, hori konponduko litzateke epaile eta fiskal gehiago baleude, eta ez egoerarik makurrenean daudenen kasuan justiziarako sarbidea mugatuta.

**E**n el mes de Marzo fue aprobado un anteproyecto de Ley por el que se revisan las tasas judiciales existentes sin realizar ninguna consulta al colectivo de abogados, a pesar de las manifestaciones públicas, que el Ministro de Justicia realizó ante los medios de comunicación, en las que afirmaba que se tendría en cuenta la opinión de la abogacía para cualquier cambio sustancial en la Administración de Justicia.

Pues bien, tal toma de contacto y consulta con nuestro colectivo no se ha producido, lo que ha llevado al Consejo de Ministros a adoptar una decisión que puede acabar menoscabando el sagrado Derecho de Defensa, al establecer unas tasas judiciales que desde luego, lejos de acabar con el exceso de litigiosidad sin fundamento, lo que harán será permitir la misma a quienes tienen mayor disponibilidad económica limitando realmente el acceso a la Justicia a aquellos que viven una situación más desfavorecida, lo que, sin duda, atenta contra el principio de igualdad de derechos de los ciudadanos.

No es sino un engaño, argumentar que esta revisión de tasas no perjudicará a quienes tienen menor poder adquisitivo y no supondrá una traba al ejercicio de la tutela judicial efectiva por cuanto que no será aplicable a los beneficiarios de Justicia gratuita, porque, todos aquellos que ejerceremos esta profesión sabemos que hay muchas personas que, si bien no pueden disfrutar de ese derecho por superar escasamente los baremos económicos exigidos, se verán condicionados de forma importante a la hora de abordar la interposición de ciertos recursos, por la cuantía de las tasas, lo que ocurrirá en menor medida a aquellos justiciables con mayor nivel de ingresos.

Si la situación económica del litigante ya influye al plantearse la interposición de un pleito por la obligación de pago de nuestros honorarios pensemos en aquellos clientes que habiendo sido despedidos y tras una sentencia de primera instancia con la que no estuvieran jurídicamente de acuerdo, tuvieran que plantearse, además, el abono de 500 euros para interponer un legítimo recurso de suplicación. El carácter gravoso de tal tasa normalmente afectará, mucho más, al trabajador que a la empresa o a quienes se planteen presentar recursos frente a empresas solventes como aerolíneas, compañías de seguros, bancos etc...

Son cuestiones que la abogacía conoce de primera mano por ser nosotros quienes ejercemos el derecho de defensa, quienes gestionamos los servicios de orientación jurídica, quienes tratamos con los justiciables y quienes mejor conocemos los detalles del devenir constante de la administración de justicia. Sin embargo, no sólo se nos ha obviado al desarrollar este anteproyecto, sino que, además, se pretende argumentar la bondad del mismo, exponiendo que nuestros honorarios resultan más caros que las tasas en un intento de desviar la atención y las quejas por el precio del acceso a la justicia hacia nuestro colectivo, olvidando que según recientes estudios sociológicos, la abogacía está notablemente mejor valorada por la sociedad que los políticos que la dirigen y que las quejas de los ciudadanos se centran en la lentitud de la justicia y la falta de medios lo que, sin duda se resolvería, con mayor dotación de jueces y fiscales y no con el intento de limitar el acceso a la justicia a los más desfavorecidos.

“

**No es sino un engaño, argumentar que esta revisión de tasas no perjudicará a quienes tienen menor poder adquisitivo**

”



**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatu  
Bazkun  
Ohoretsua**  
  
**Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

**Decano / Dekanoa**  
Nazario Oleaga Páramo

**Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea**  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

**Colaboradores / Laguntzaileak**  
César Gallastegi Aranzabal  
Garazi Arraibi Larrea  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzarraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz

**Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>  
[elboletin@icasv-bilbao.com](mailto:elboletin@icasv-bilbao.com)

Depósito Legal / Legezko gordailua  
2.069/1987

# ABOKATUEN BAZKUNEKO URTEKO BAZKARIA: EKAINAK 1 BILBOKO KASINOAN

Aurten, Bizkaiko Abokatuena Bazkuneko urteko bazkaria ekainaren 1ean (ostirala) egingo da BILBOKO KASINOAN.

Gobernu Batzordearen ustez, Bazkuneko bazkaria jaia izan behar da Bizkaiko abokatuentzat. Lagunentzat eta lankideentzat topaketa izan behar du, eta horretan ordu batzuk modu atsedenean igarotzeko aukera eman behar da.

## EGITARUA:

- 13:00: Bazkunean elkargokide berriak sartzeko ekitaldia Abokatuena bazkuneko ekitaldien aretoan.
- Jarraian: OMENALDIA 2011. URTEAN LANBIDEAN 25 URTE EGIN ZITUZTEN ELKARGOKIDEEI. Azken horiek elkargokide berriak besoetan hartuko dituzte.
- 14:00: APERITIBOA ekitaldi ofizialetara doazentzat.
- 14,15: HARRERA BILBOKO KASINOAN, ALAMEDA URQUIJO kalean.
- 15:00: BAZKARIA KASINOKO JATETXEAN. Azkenburukoetan, Kirol Batzordeak antolatutako txapelketetako trofeoak banatuko dira.
- Mahaian eskainiko den koparen ostean, azkenburukoen ostean, beste kopa bat hartu ahal izango dugu musika-gunetik hurbil jarritako barran.
- Amaitzeko, DJ batek bazkalostea alaituko digu et agure gorputzak dantzan jartzen ahaleginduko da aretoan horretarako bereziki prestatutako gune batean.

Mahaiak biribilak dira, hamarrentzat. Hori dela eta, beste elkargokide batzuekin jan nahi dutenek alde aurretik esan behar digute, mahaiak behar den moduan antolatzeko.

Aurreko urteetan egin dugun moduan, ordainketa eta bazkariko txartelen bilketa sinplifikatu nahi dugu, jakin dakigulako zuetako askorentzat ez dela eroso eta ez dugu nahi inguruabar hori bazkarira joateko oztopoa izatea.

Nahikoa izango da Bazkunera deitzea -1. solairua 944 356 200- eta izen-abizenak eta elkargokide zenbakia ematea. Horrela, bazkarian altan emanda egongo zarete. Txartel bakoitzaren prezioaren zati bat norberak ordaindu behar du eta Bazkunak gainerakoa bere gain hartuko du, zenbateko osoa ordaindu arte.

Bide hau erabili nahi duten guztientzat, bazkarira doan bakoitzak ordaindu beharreko zenbatekoa Bazkunean kuotak ordaintzeko daukagun kontu-zenbakian sartu behar da.

Agur bero bat  
BIZKAIKO ABOKATUEN  
BAZKUNEKO GOBERNU  
BATZORDEA

2012ko apirila  
 abril 2012

06

## BERRIAK

10

## INFORMAZIOA

Ohar orokorrak dokumentu  
 elektronikoaren inguruan

Monarkia parlamentarioa.  
 Errege-etxearen aurrekontuak

14

## JARDUNALDIAK

Galdeketa teknikei, estresaren kontrolari  
 eta denboraren kudeaketa eraginkorrari  
 buruzko ikastaro praktikoa

Kirol arbitrajeari buruzko jardunaldia

18


## BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

20

## LEGEGINTZA BERRITASUNAK

22

## KULTUR ERANSKINA



06



09



14



16



22



24

## Ministroen Kontseilua

## GOBERNUAK TASA JUDIZIALEN SISTEMA OSORIK BERRIKUSTEA ONETSI DU BIGARREN AUZIALDIAN

### Tasen bidez bildutakoak doako justizia finantzatuko du.

Ministroen Kontseiluak 2002tik indarrean dauden tasa judizialak berrikusteko lege-aurreproiektua onetsi du gaur. Tasa judizial horiek Neurri Fisikal, Administratibo eta Lan Arlokoiei buruzko Legeak arautu zituen. Justizia Administrazioa eta Toxikologiako eta Auzitegi Zientzietako Institutu Nazionalako zenbait tasa eraldatzeko legean bi hobekuntza ere gehitu dira kudeaketari begira: prokuradoreek eta abokatuak ordainketa erraztu ahal izango dute, eta tasaren likidazioa berrikusteko aukera ezarriko da prozedura judiziala izapidetzen den bitartean.

Ekimen horren bidez, gaur egun epaitegietan pilatuta dauden auzi guztiak murriztu nahi dira. Baliabide ekonomikoak dituzten herritarrek ordain-

dutako tasak ez dira joango Estatuko kutxetara; horren ordez, Justizia ministroak aurreratu zuenez, doako justizia ordaintzera bideratuta egongo dira. Azken datuak oinarri hartuta egindako estimazio baten arabera, 2010ean bildutako 172 milioi euroen ordez, sistema berriarekin 300 milioi inguru bilduko lirarteke.

Lehen auzialditik Ordena Zibilean eta Administrazioarekiko Auzien Ordenan dauden tasak Lan Arloan ere aplikatuko dira, baina bigarren auzialdian bakarrik. Inola ere ez dira izango eragozpena herritarrek babes judizial eragingarrirako eskubidea gauzatzeko; izan ere, ordaintzetik salbuetsita egongo dira abokatuaren doako laguntza aitortuta dutenak. Aitzitik, pertsona juridikoekin batera, baliabide ekonomikoak dituzten pertsona fisikoak tasa hauen subjektu pasiboak izango dira.



Amaitzeko, tasa berria gehitu da fitxa toxikologikoak produktu kimiko merkaturatuen erregistroan altan eman eta aldatzeagatik.

TASA JUDIZIALAK			
	Gaur egun €	Proposamena €	Gehikuntza €
<b>ZIBILA</b>			
Ahozkoa eta kanbio-epaiketa	90	150	60
Arrunta	150	300	150
Monitorioa eta Europako monitorioa eta konkurtso-prozesuko demanda intzidentalal	50	100	50
Epaiketaz kanpoko betearazpena	150	200	50
Nahitaezko konkurtsoa	150	200	50
Apelazioa	300	800	500
Kasazioa eta prozesuko arau-haustea	600	1200	600
<b>ADMINISTRATIOAREKIKO AUZIENA</b>			
Laburtua	120	200	80
Arrunta	210	350	140
Apelazioa	300	800	500
Kasazioa	600	1200	600
<b>LANEKOA</b>			
Arrunta eta gainerako modalitate prozesalak	0	0	-
Monitorioa	0	0	-
Erregutzea	0	500	-
Kasazioa	0	750	-

## ESPAINIAKO ABOKATUTZAREN KONTSEILU NAGUSIAK TASA JUDIZIALAK BERRIKUSTEARI “UKO EGIN DIO ERABAT”

• **Carlos Carnicer-ek Justizia ministroari bidalitako gutunaren arabera, doako justizia “justiziako gastuaren ehuneko 6,5 baino ez da, zuzenbideko estatuaren muina ukitzen du, eta aurrekontuen bidez finantzatu beharko litzateke, ez tasa berezien bidez”**

• **“Gaur egungo egoerak zailtasun handiak ditu guztientzat, bereziki profesional liberalentzat; izan ere, gure bezeroen arabera jarduten dugu. Hori dela eta, ez da bidezkoa ez onargarria esatea tasa horiek ordaintzeak ez duela garrantzirik abokatuek kobratzen dutena kontuan hartuta”, azpimarratu du.**

2012/04/02.- Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak, Carlos Carnicer presidentek Alberto Ruiz-Gallardón Justizia ministroari bidalitako gutun baten bidez, “uko egin dio erabat” Ministroen Kontseiluak joan den ostiralean tasa judizialak berrikusteko onetsi zuen aurreproiektuari. Tasa horiek “doako justiziaren gastuak ordaintzeko” erabiliko lirateke. Abokatutzaren Kontseilu Nagusia ez dago haserre aipatu aurreproiektua helarazi ez zaiolako bakarrik -nahiz eta behin eta berriro esan Abokatutzaren iritzia uneoro kontuan hartuko zela-, baita ere (eta bereziki) Ministerioak araua justifikatzeko egindako adierazpenengatik.

Abokatutzaren ustez, “ez da onargarria gure zuzenbideko estatuan balantza bat jartzea eta alde batean defentsarako oinarrizko eskubidea eta bestean tasa baten ordainketa kokatzea. Defentsarako eskubidea, oinarrizkoa eta Konstituziora bilduta dagoena, ezinbestekoa da zuzenbideko estatuak irauteko, eta ezin dira tasak ezarri doako justizia eskaintzen duten abokatuak ordaintzeko. Horrela jokatzu gero, herritarrak eta abokatuak aurrez aurre jartzen dira, modu bidegabean”.

Horrez gain, Kontseiluko presidentek ministroari idatzitako gutunean azaltzen denez, “irizpide arriskutsua gehitu da doako justiziaren gizarte-kostuaren inguruan; hain zuzen ere, doako jus-

tizia, kasu askotan, lanik, bitartekorik ez itxaropenik ez dutenen oinarrizko eskubideak egikaritzeko azken baliabidea izaten da”.

“Doako justizian egindako gastua gizarte-bakean egindako inbertsioa da, eta horren arauketa hobetu daiteke (behin eta berriro eskaini dugu gure burua elkarrizketan aritzeko), baina ezin da esan gehiegizkoa denik. Ez da gehiegizkoa, justiziako gastuaren ehuneko 6,5 baino ez baita eta zuzenbideko estatuaren muina ukitzen duelako. Aurrekontuen bidez finantzatu beharko litzateke, eta ez tasa berezien bidez”, gehitu du presidentek.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusia bereziki arduratuta dago Ministerioak tasak berrikusteko egin dituen adierazpenengatik. Ministerioaren arabera, “auzi gehiegi” egitea saihestu nahi da, eta “auzitegiatar jotzen duten herritarrek haien abokatuak eta prokuradoreak ordaindu behar dute. Inork ez du uste kostu hori justizian sarbidea izateko oztupoa denik, eta tasa horiek baino askoz gehiago balio du”.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusiaren esanetan, auzi gehiegi egotea saihesteko modua ez da justizian sarbidea izateko oztupoa jartzea, tasen itxurapean. “Herritarrek eskubidea daukate auzitegiatar jotzeko eskubide, interes eta uzi legitimoak babesteko, gure Konstituziora bildutako moduan, eta justiziara sarbidea izatea ezin da eragotzi tasen sistema erabiliz, azken finean, horrek kalte egiten baitie bitarteko ekonomiko gutxien dutenei”. Carnicerrek ministroari igorritako gutunean esaten denez, “ondo iruditzen zaigu auzitegiatar joatearen aurreko formulak bilatzea eta gatazkak epaiketaz kanpo ebazteko bideak ugaritzea (dakizunez, gatazken ia %50 ez dira auzitegiatar iristen, abokatuaren bulegoetan konpontzen baitira), baina ez izaera ekonomikoa duten oztupoa jarrita. Gure Justizia Administrazioarako konponbideak bilatu behar ditugu, eta horretarako, berriro ere, Abokatutzaren lankidetzara leiala eskaintzen dizut”.

Abokatutzaren Kontseilu Nagusia ez dago ados argudio honekin: “abokatuari ordaintzea ez da oztupoa Justizian sarbidea izateko, eta abokatuaren ordainsariak finkatuko diren tasak baino askoz handiagoak dira”. Izan ere, “gaur egungo egoeran, guztiok zailtasun handiak ditugu, eta batez ere profesional liberalek, gure bezeroen arabera aritzen baikara; beraz, ez da bidezkoa ez onargarria esatea tasa horiek ordaintzeak ez duela garrantzirik abokatuek kobratzen dutena ikusita”. Izan ere, “herritarrak, guk egindako azterketa soziologikoetan, ez dira kexatzen gure ordainsariez. Baina kexu dira bitartekorik ez dutelako, Justizia Administrazioa geldoa delako eta prozesuek gehiegi irauten dutelako. Arazoa hori da, eta ez abokatuek asko edo gutxi kobratzen duten. Bere bezeroek ondo dakite zer ordaintzen duten, zergatik ordaintzen duten eta ados daude gure lanarekin. Baina ez ‘tasak’ ezartzearekin, igotzearekin eta tasa horiek proportzionalak ez izatearekin, hori ez baitute inola ere ulertzen”, azpimarratu du Kontseilu Nagusiko presidentek.

Carnicerrek gonbitea egin dio ministroari “gogoeta egiteko eta adierazpenik ez egiteko, adierazpen horiek gizartearen eta gure kolektiboan haserre eragiten ez dutelako, eta jendaurrean esan zenuelako gure kolektiboan errespetatu egin duzula”.



## CARLOS CARNICER-EN GUTUNA JUSTIZIA MINISTROARI

Madril, 2012ko apirilaren 2a

**Alberto Ruiz-Gallardón Jiménez jn.**

Justizia ministroa;

Lerro hauen bidez, Espainiako Abokatu Kontseilu Nagusiaren eta izenean kexa adeitsu baina indartsua helarazi nahi dizut, bi arrazoi direla-eta, biak orainsu onetsitako tasa judizialak berrikusteko aurreproiektuari lotuta. Tasa judizialak “doako justiziaren gastuak ordaintzera” bideratuko dira. Baretetik, ez dugu aipatu aurreproiektuaren berririk izan, behin eta berriro esan duzun arren abokatuaren iritzia uneoro kontuan hartuko zela; bestetik, Justizia Ministeriotik araua justifikatzeko egindako adierazpenak direla-eta haserre gaude.

Proiektua eztabaidagarria izan daitekeen alde batera utzita, nire ustez egokia izango litzateke erakunde honen iritzia kontuan hartzea, guk ordezkatzen ditugun abokatuak egunero-egunero defentsa-eskubidearen alde borrokatzen baitira eta haiek oso ondo ezagutzen baitituzte gure epaitegi eta auzitegien funtzionamendua eta gure bezeroak diren herritarren irizpideak. Kontseilu Nagusi honi kontsulta hori egin ez zaion arren, Ministeriora testuaren inguruan ditugun oharrak helaraziko dizkiogu.

Horrez gain, nire ustez irizpide arriskutsua gehitu da doako justiziaren gizarte-kostuari buruz. Kasu askotan, lanik, bitartekorik ez itxaropenik ez duten jendeak oinarrizko eskubideak bermatzeko duen azken bitartekoa da. Gogoan izan behar da doako justiziara jo dezaketela bakar-bakarrik Eragin anitzeko errenta adierazle publikoaren bikoitza (IPREM) baino gutxiago jasotzen dutenek, hilean 1.242 euro inguru. Hori dela eta, pertsona askok ezin izango dituzte tasak ordaindu (1.200 euro kasazio-errekurtsioan). Doako justizian egiten den gastua gizarte-bakean egin-

dako inbertsioa izan da eta da; argi dago horren inguruko arauketa hobetu daitekeela, eta guk gure burua eskaini dugu behin eta berriro elkarrizketan aritzeko. Hala ere, doako justizian egiten den gastua ez da aurkeztu behar gehiegizkoa edo justifikatu beharrekoa balitz bezala. Ez da hala, justizian egindako gastuaren ehuneko 6 besterik ez delako, zuzenbideko estatuaren erdigunean eragiten duelako eta aurrekontuen bidez finantzatu beharko litzatekeelako, eta ez tasa berezien bidez.

Baina gehien arduratu gaituena, eta horixe da kexa honen funtsezko arrazoia, Ministeriotik egindako adierazpenak izan dira. Horien arabera, tasak berrikustearen helburua da *“auzi gehiegi ez egotea”* eta *“auzitegiatan auzitan aritzen diren herritarrek abokatua eta prokuradorea ordaindu behar dituzte. Inor kez du uste kostu hori justiziara sarbidea izateko oztopoa denik eta zenbatekoa tasa horiek baino askoz handiagoa da”*.

Kontseilu honek behin eta berriro esan du auzitan aritzea saihesteko modua ez dela justizian sarbidea izateko oztopoa jartzea, tasen itxuran. Herritarrek eskubidea daukate auzitegiara jotzeko haien eskubide, interes eta uzi legitimoak defendatzeko, gure Konstituzioak aitortzen duen moduan. Sarbide hori ezin da eragotzi tasen sistema erabiliz, azken finean, sistema horrek baliabide ekonomiko gutxien dutenei kalte egiten die eta. Bere garaian adierazi genuen eta orain berriro ere esaten dugu. Ondo iruditzen zaigu auzitegiara jotzea saihesteko formulak bilatzea eta gatazkak epaiketaz kanpo konpontzeko bideak handitzea (dakizunez, gatazken %50 ia-ia ez dira epaitegiara iristen, abokatuaren bulegoetan konpontzen baitira), baina ez izaera ekonomikoko oztopoa ipinita. Gure Justizia Administrazioarako konponbideak bilatu behar ditugu eta, horretarako, berriro ere, abokatu guztien lankidetzara leiala eskaintzen dizut.

Era berean, ez da onargarria arauaren “ontasuna” defendatzea, abokatuari ordaintzea justizian sartzeko oztopoa ez dela eta abokatuaren ordainsarien zenbatekoa finkatuko diren tasak baino askoz handiagoak direla esanda. Zuk oso ondo ezagutzen duzu gure lanbidea, zein diren kobratzen diren

ordainsari legitimo eta batzuetan doituak, eta zein zaila den askotan ordainsari horiek kobratzea. Eta gaur egungo egoeran, guztientzat hain zaila den testuinguruan eta bate zere lanbide liberalentzat, gure bezeroen menpe baikaude, ez da bidezkoa ez onargarria esatea tasa horiek ordaintzeak ez duela garrantzirik, abokatuak kobratzen dutena ikusita. Bitxia bada ere, guk egindako ikerketa soziologikoetan, herritarrek ez dira kexatzen gure ordainsariez. Baina kexak dituzte bitartekorik ez dagoelako, gure Justizia Administrazioa oso geldoa delako eta prozesuek gehiegi irauten dutelako. Hori da arazoa, eta ez abokatuak asko edo gutxi kobratzen duten. Gure bezeroek ondo dakite zer ordaintzen duten, zergatik ordaintzen duten, eta gustura daude gure lanarekin. Baina ez “tasak” ordaintzearekin, tasak ezartzearekin, igotzearekin eta tasen aldearekin, ez baitute inola ere ulertzen.

Ez da onargarria gure zuzenbideko estatuan balantzaren alde batean defentsarako funtsezko eskubidea eta beste aldean tasa baten ordainketa ipintzea. Defentsarako eskubidea, oinarrizkoa eta Konstituzioan ere garrantzia duena, ezinbestekoa da zuzenbideko estatuak irauteko, eta tasak ezin dira ezarri doako justiziaren zerbitzua ematen duten abokatuari ordaintzeko beharrezko baliabide moduan. Horren eraginez, herritarrek eta abokatuak aurrez aurre jartzen dira modu bidegabean.

Aspaldi, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (1983ko azaroaren 23ko epaia, Van der Musselle kasua) ezarri zuen estatuak ordaindu behar dituela abokatuari dagozkien kalte-ordainak doako justiziaren kasuan, eta ez dela onargarria ordainketa horri tasa batzuekin aurre egitea, tasa horien helburu bakarra dirua biltzea izanda.

Hori guztia kontuan hartu beharko zenuke eta ahal dela horren inguruan ez zenuke adierazpenik egin behar, zure esanetan asko errespetatzen duzun gure kolektiboan eta gizartean haserre eragiten baitute.

Agur adeitsu eta zintzoa

# OHAR OROKORRAK DOKUMENTU ELEKTRONIKOAREN INGURUAN

**Sonia Prieto**

Negozio-kontseilaria Ibermátican.

Gure Administrazioaren helburu arranditsuenetakoa administrazio elektronikorantz urratsak ematea da, hau da, herritarrekin gailu elektronikoen bidez elkarreragiteko gai den administrazioa bihurtzea, teknologia-aren bidez zerbitzu publikoa eraginkor-rragoa, arrazionalagoa, eraginkor-rragoa eta lehiakoragoa izan dadin. Gaur egun hori ez da huskeria, eta horrek, zalantzarik gabe, onura garrantzitsuak ekarriko ditu gure gizartearentzat.



Aurrekoa lortzeko, corpus juridikoa sortu da eta, berriro ere, tekniko eta juridikoa hurbiltzen ditu, bat-egite ezinbesteko eta beharrezkoan. Modu horretan, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoak izateari buruzko 11/2007 Legearen ostean, hainbat arau-xedapen etorri dira, kasuan kasuko agertoki teknologikoak mugatzeko, eta araua betetzea ahalbidetzen duten irizpideak, jarraibideak eta metodologiak ezarri.

Autonomia-erkidegoan, lehenengo dekretua 2007. urtearen ingurukoa da (232/2007 Dekretuak, abenduaren 18koak, administrazio-prozeduretan baliabide elektronikoa, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen du); oraintsu beste dekretu bat argitaratu da, 21/2012 Dekretua, otsailaren 21ekoa, Administrazio Elektronikoari buruzkoa, aurrekoa indargabetu eta aipatu 11/2007 Legearen errekerimenduetara egokitzen dena, zioen azalpenean azaltzen denez.

Dekretu honen eta 11/2007 Legearen gai giltzarrietako bat, zalantzarik

gabe, paperezko dokumentua dokumentu elektronikorekin ordezkatzeko da, eta dokumentu hauei segurtasun juridikoa emateko beharrezko bermeak identifikatzeko administrazio-prozedura desberdinetan.

Papera ordezkatzeko administrazioan “zerbait” gertatzen dela ikusteko seinalea da. Guztiok gogoan dugu espediente asko eta askoren erdian erdilurperatuta dagoen funtzionarioaren irudia, bulego paperez gainezka duela. Hain zuzen ere, horrexegatik, zaila da funtzionarioarentzat eta herritarrentzat paperik gabeko espazio publikora ohitzea, mahaian ordenagailua edo gailu elektronikoa besterik ez duela. Nola ez, konparazioa puzten arin aiz, zaila izango da papera guztiz desagertzea. Baina ez da ausartegia esatea etorkizun hurbilean espedienteak paperik gabe izapidetuko direla, mugimendu elektronikoa hutsak eginda. Dokumentuak internet bidez aurkeztuko dira, edo dokumentuak gehitzea ez da nahitaezkoa izango dokumentuotako datuak irisgarriak izango baitira administrazioen arteko elkarreragingarritasun akordioak direla bidez; azken inguruabar hori etorkizunean artikulua batera bildu daiteke, besteak beste, datuen babeserako dituen inplikazioengatik.

Eusko Jaurlaritzako Dekretuak VI. Tituluan dokumentuei aipamen egiten die, eta lau kapituluetan hainbat alderdi jorratzen ditu, hala nola, dokumentu elektronikoa, espediente elektronikoa, dokumentu elektronikoa kontserbatu eta artxibatzea eta kopia elektronikoa.

Artikulu honetan kontzeptu berritzailer horietara hurbilketa egin nahi dugu, gure hizkeran eta gure eguneroko ohituretan gehitzeko, batetik legelariak garelako, eta, bestetik, herritarrak eta zerbitzu publikoen bezeroak garelako.

## Dokumentu elektronikoa

Dokumentu elektronikoa objektu digitala da. Lortutako irudi elektronikoa,

metadatuak eta sinadurak (halakorik badago) osatzen dute. Esparru honetan bereizi egin behar da administrazio-dokumentu elektronikoa: kasu guztietan, leialtasun, osotasun eta kautotasun bermeak bete behar ditu, euskarria aldatu arren dokumentuak paperezko dokumentuaren berme juridiko bera izan dezan.

Bereizketa horren arrazoa hurrengoa da: administrazio-dokumentu elektronikoa administrazio-organo batek modu baliozkoan igorritako dokumentua da, legez onartutako sinadura elektronikoa bat lotuta izango du, eta denbora-erreferentzia edo denbora-ikurra; dokumentu elektronikoa “besterik gabe” baliteke aurretik digitalizazio edo eskaneatze prozesua eskatzea, et ahoi ere beharrezko bermeekin egin behar da, berriro ere, paperezko jatorrizkoarekin alderatuta kautotasuna, leialtasuna eta osotasuna bermatzeko. Modu horretan, paperezko dokumentua suntsitu daiteke edo, bestela, igorleari itzuli, euskarri elektronikoa paperezko euskarriaren berme juridiko bera baitu.

Administrazioen artean trukatu den edo herritarrek kontsultatu duten dokumentu elektronikoa Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionalan eta hori garatzen duten arauetan formatuari, egiturari eta metadatuari dagokienez ezarritako gutxienezko betekizunak bete behar ditu.

Era berean, administrazioak herritarren edo beste administrazio batzuen eskura jarritako dokumentu elektronikoa sartzeko eta horiek jaitea bermatu behar du, bai egoitza elektronikotik, bai kasu bakoitzean dagozkion arreta-kanaletatik.

Administrazio-prozedura bat osatzen duten dokumentu elektronikoen multzoak espediente elektronikoa izenekoak osatzen du. Euskarria gorabehera, administrazioak horietara sarbidea izateko eta horiek eskuratzeko eskubidea du, eta horien kopia lortzeko aukera bermatu behar zaio. Hori guztia Elka-

rreragingarritasuneko Eskema Nazionalen ezarritakoaren arabera egin behar da, administrazio publikoen artean adostutako egitura alternatiboak alde batera utzita.

### Kopia elektronikoak

Paperetik euskarri elektronikora igarotzea errazagoa edo zailagoa izan daiteke, baina benetako konplexutasuna sortzen da administrazioarekin elkarrengaitan dokumentuekin egiten ditugun eragiketa guztiak inguru berrira igarotzea planteatzen dugunean. Horixe gertatzen da, esaterako, kopiak autoen eta erkatzeen kasuan.

Izan ere, aurretik esan dugunez, euskarri elektronikorako trantsizioak ez du esan nahi papera euskarri moduan desagertzen denik, kopiak ere beharrezkoak izango baitira. Eta horri horrela izanik, ezinbestekoa da beharrezko neurriak hartzea hobekuntza horrek dokumentu horri lotutako bermeak ez gutxitzeko.

A priori hori nabarmena izan daitekeen arren, ezin dugu bilatu mundu analogikoan ez dagoen zerbait. Izan ere, elektronikoak askotan gure eguneroko kudeaketan ditugun beldurrak eta mesfidantzak agerian uzten ditu. Paperezkoak, "ukigarria" denez, nolabaiteko segurtasuna ematen digu, eta hori galdu egiten da erabat zeroen eta baten munduan.

Gure psikearen mania bat dela esan dezakegu, baliteke, baina dena den asko baldintzatzen ditu e-administrazioarako bide honetan aurkitze ditugun aldaketa-prozesuak. Gai hori ere zirraragarria da, eta horrek ere analisi berezia eskatuko luke.

Behin hori esanda, zein kopia mota egin ditzakegu eta zein dira horien bermeak?

Autonomia-erkidegoko Dekretuaren VI. Tituluko IV. kapituluari gai hori jorratzen da. Zerbait kopia mota bereizten dira, eta oro har, Elkarrengaitasuneko Eskema Nazionalera jotzen du modu horretan lortutako kopiaren segurtasun juridikoari begira kontuan hartu beharrezko alderdi teknikoak zehazteko. Mota honetako kopiak bereizten dira:

- *Agiri elektronikoaren kopia elektroniko kautoak.*

Kopia hauek dokumentu elektroniko berriak izango dira eta jatorrizko guri elektronikoaren eraginkortasun juridikoa izango dute, formatua eta edukia aldatzen ez dituztelako, eta Dekretu honetara bildutako sinadura elektronikoko sistemaren baten bidez sinatuta egongo dira. Formatua aldatzen badute, Elkarre-

ngaitasuneko Eskema Nazionalen (aurrerantzean EEN) eta hori garatzeko arauetan ezarritakoa bete behar da, eraginkortasun juridikoa bermatzeko.

- *Euskarri elektronikoan ez dauden dokumentuen kopia elektroniko kautoak.*

Kasu hauetan, jatorrizko dokumentua aurretik digitalizatu egin behar da, EENn ezarritako bermeekin, dokumentuaren kautotasuna eta osotasuna bermatzeko.

- *Administrazio-dokumentu publiko elektronikoaren paperezko kopia kautoak.*

Kopia kautoa izan dadin, beharrezkoa izango da modu elektronikoan sortutako kodea edo antzeko egiaztatze-sistema gehitzea; modu horretan, agiriaren kautotasuna egiaztatu ahal izango da kasuan kasuko dokumentu elektroniko-ara, dokumentuaren sinadurara eta nahitaezko gutxieneko metadatueta joz egoitza elektronikoan.



- *Dokumentu elektronikoaren kopia elektronikoak.*

Herritarrei aitortu eta bermatu egiten zaie haiek interesdun moduan dituen espedienteko dokumentu elektronikoaren kopia elektronikoak lortzeko eskubidea.

Kopia hori dokumentuen laburpenen bidez edo interesduna ukitzen ez duten datuen konfidentzialtasuna bermatzen duten beste metodo elektroniko batzuk erabiliz lortu ahal izango da.

- *Dokumentuen konpultsatze elektronikoak.*

Jatorrizko dokumentua espedientean egotea nahitaezkoa ez bada eta herritarrek kopia konpultsatua aurkeztu nahi badu, ikuspuntu elektronikotik beharrezkoa da lehenengo eta behin bermeak dituen digitalizazioarako beharrezko teknologia izatea. Hori guztia dokumentu elektroniko modu elektronikoan sinatzeko beharra ahaztu gabe.

Era berean, ez da ahaztu behar jatorrizko dokumentuak edo kopia elektroniko kautoak

dituzten paperezko kopiak suntsi daitezkeela, hori bai, administrazioan dokumentuak kudeatzeko dauden irizpideen arabera.

### Ondorioak

Nabarmena denez, dokumentu elektronikok, administrazio-prozeduren izapidetzan funtsezko osagaia den aldetik, gai asko eta interesgarriak eragiten ditu.

Lehenengo eta behin, galdetu daiteke ea benetan papera ordeztuko duen. Dokumentu elektronikoaren abantailak ahaztu gabe, lehen begiratuan, paperaren usagarritasunak handiagoa dirudi, une honetan behintzat. Hori dela eta, bi tresnak elkarrekin luzaroan biziko direla iragarri dezakegu.

Bigarren, administrazioaren esparruan mota horretako berrikuntzak abian jartzeko ikuspuntu teknikitik prestatuta dauden profesionalak behar dira. Profesional horiek ulertu egin behar dute digitalizaturako dokumentuaren irismena, horren inplikazioak eta horren inguruan egin daitekeen edozein tratamenduk dituen ondorioak. Adibidez, ikusi egin behar da nola egiten diren aurre gorputz judizialak epaiketean frogatzen diren dokumentu elektronikoak...

Hesiaren bi aldeetan aldaketa ezinbestekoa izango da, bai herritarren artean bai funtzionarioen artean; izan ere, herritar moduan eta profesional moduan gure eguneroko zereginetan eragin sakon aduen aldaketaren aurrean gaude.

Hirugarren, dokumentu elektronikoak, eta batez ere, herritarren datuak administrazioen esku jartzeak, hainbat akordio direla bide eta EENko irizpideen arabera, zalantzak sortzen ditu, eta zergatik ez, baita mesfidantza ere datuen babesaren inguruan eta herritarrek Administrazio Publikoaren aurrean duten maniobra-tartearen inguruan. Izan ere, modu horretan, administrazioak herritarrei buruzko informazio balioetsua zentralizatuta eta kide eta organismo guztien eskura du.


Zalantzarik gabe, administrazioa egiteko moduetan aldaketa iraultzailea gertatu da. Inplikatu guztiei egokitzeko ahalegin bat eskatzen die, eta horretarako, bateratu egin behar dira aurrera egiteko eta berrikuntza teknologikoak izateko nahia eta administrazioa arrazionalizatzeko beharra, herritarren eskubideei eta bermeei kalterik egin gabe.

# MONARKIA PARLAMENTARIOA. ERREGE-ETXEAREN AURREKONTUAK

## Zuzkidura ekonomikoa

Konstituzioaren 65. eta 134. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Gorte Nagusiek urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea argitaratzen dute. Legearen lehenengo atalean, ekitaldi bakoitzerako kopuru orokor bat ezartzen da –Gobernuak proposatuta– “Erregearen Etxe” izeneko konstituzio-erakunderako.

Kopuru orokor hori –azken bost urteetako enbatekoa beheko taulan jaso da– urtero aldatu egiten da gainerako konstituzio-organoei aplikatzen zaien aldaketarekin bat etorri. Gaur egungo aurrekontu-austeritatearen eskakizunak ikusita, Erregearen Etxeak eskatu zuen 2010eko ekitaldiko kopuru orokorra 2009ko kopuru bera izatea. **8/2010 Errege Dekretu-legean** defizit publikoa murrizteko ezarritakoa parteko neurriekin bat etorri, Etxeak erabaki zuen 2010eko ekitaldirako onetsitako kopuru orokorraren %2 ez erabiltzea eta Ogasun Publikoaren esku uztea.



Estatuko 2011ko Aurrekontu Orokorren 01 Atalean kontsignatutako zifra osoa 8.434.280,00 euro da, hau da, 2010eko ekitaldirako onetsitako kopuruarekin alderatuz, %5,2 gutxiago, konstituzio-organoei diru-izendapenak murrizteko joeraren barruan, Gorte Nagusiek hala onetsi zuten Estatuko Aurrekontu Orokorretan.

Konstituzioaren arabera, Erregeari dagokio Erregearen Etxeko funtzionamendu- eta langile-gastuak ordaintzea eta Erregearen familia mantentzea bideratutako zenbateko hori askatasunez banatzea. Diru-izendapen horren xedea da Estatu buruzagitzak behar den besteko aurrekontu-zuzkidura izatea Estatuburuak eginkizunak konstituzio-funtzioei datxekien independentziarekin egin ahal izateko.

Urteroko kopuru horrekin, Erregearen Etxeak Estatuko beste organismo batzuek euren gain hartzen ez dituzten betebeharrak ekonomiko zuzenean aurre egiten die (1): Etxean lan egiten duten goi-zuzendaritzako, zuzendaritzako langileen eta lan-kontratadun langileen ordainsariak, kuotak eta gizarte-prestazioak; funtzionamendu-gastuak, hala nola bulegoko materiala; zenbait hornikuntza; protokolo- eta ordezkartza-gastuak –bazkariak, afariak, jaiak-; dietak eta

garraio-gastuak; unitateen funtzionamendurako askotariko materialak erostea, etab.

(1) *Munduko herrialde gehienetan bezala, bidaiari eta bisita ofizialei lotutako gastuak Atzerri Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioak ordaintzen ditu. Era berean, ikusi aurrerago hurrengo hauei dagozkien gastuak: Segurtasun Zerbitzua, ibilgailuak, Zarzuela jauregia mantentzea, etab.*

Konstituzio-organoei, hala nola Kongresuan eta Senatuan, eta gure inguruko beste herrialde batzuetan –errepublikak zein monarkiak– gertatzen den bezala, Erregearen Etxeari urtero ematen zaion diru-kopuru orokorra ez dago Kontu Auzitegiaren mende.

Erregearen Etxea ez da bereizten beste konstituzio-organoei batzuetatik eta ministerioei sailetatik; **Segurtasun Zerbitzuen gastuak** Barne Ministerioaren mende daude, eta **ibilgailu ofizialei eta gidariei** dagozkien gastuak Estatuko Automobil Parkeari dagozkio (Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa).

Zarzuela jauregia eta gainerako errege-lekuak Estatuaren jabetzakoak dira. Horiek mantentzea, legez, Ondare Nazionala organismo autonomoari dagokio.

Horrez gain, lan arloan eta arlo fiskalean, indarreko legeria bete behar du.

Maiatzaren 6ko **434/1988 Errege Dekretuan**, arlo ekonomikoan gaitasun hauek esleitzen dira:

- **Etxeko buruak** Etxeko aurrekontu-proposamena egiten du eta bertako zerbitzuen gastuak zehazten ditu, kontratuak sinatzen ditu eta urteko kontuak onesten ditu.
- **Idazkari nagusiak** Etxeko aurrekontu-proiektua egiten du, zorrotasun, ekonomia eta eraginkortasun printzipioak oinarri hartuta, eta proiektu hori Etxeko buruari igortzen dio, baita urteko kontuak eta bere kargu dauden zerbitzuen egoerari, kostuari eta etekinari buruzko txostena ere. Ordainketak agintzea ere berari dagokio.
- **Administrazio, Azpiegitura eta Zerbitzuen Unitateak**, idazkari nagusiaren mende, urteko kontuak egiten ditu. Etxeko buruak eta idazkari nagusiak aginduta, arlo horretan dituen eskumenak egikaritzeko lan-organoa da; baliabide ekonomikoak Aurrekontuen Lege Orokorrean eta Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean ezarritako irizpideen arabera administratzen ditu.
- **Esku-hartze Bulegoaren** burua kontu-hartzailea da, eta berari dagokio kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren, aurrekontu-kudeaketaren eta kontabilitate-kudeaketaren kontrola egitea, Estatuko Administrazioan erabilitako tekniken arabera. Urtero Etxeko buruari urtean egindako txostenen laburpena bidaltzen dio.


**Banaketa**

Kopuru osoa banatzeko, irizpide orokor hauek aplikatu dira:

- 2010eko aurrekonturako ezarritako zifrak eta gerora egindako doikuntzak oinarri hartu dira. Hortik ateratzen diren zifrei 2011rako aurreikusitako beharrian berrietarako kopuruak gehitu zaizkie, eta 2010ean soilik egon diren beharriaz zegozkien gastuak kendu dira.
- 2010eko abenduaren 31n indarrean zeuden **goi-kargudunen ordainsariak ez dira aldatu**, Nazioko Gobernuak 2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean goi-kargudunenetzat ezarritako politikarekin bat etorritik (maiatzaren 6ko 434/88 EDren Lehen Xedapen Gehigarrian ezarritakoa aplikatuz). 2010ean, ordainsari horiek 8/2010 Errege Dekretu-legean ezarritakoa murriztu ziren, eta era berean, Errege Familiari buruzko kapitulura bildutako kopuruak %15 murriztu ziren.
- Irizpide horiek aplikatu dira langileen, etekinaren gaineko pizgarrien eta ondasun eta zerbitzuei lotutako gastuen arloan.
- Estatuko Aurrekontu Orokorretako **sailkapen ekonomikoa** hartu da, Aurrekontuen Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko urtarrilaren 19ko Ebazpena bildutakoa.

Irizpide horiek aplikatuta, Erregearen Etxeko aurrekontuko zenbatekoen banaketa aurkeztu da, Estatuko Administrazio Nagusiko aurrekontuaren zenbatekoentzat aplikatzen den **desagregazio maila berarekin**.

2011ko ekitaldirako esleitutako kopuru orokorra **8.434.280,00 euro** dira. Modu honetan banatu da:



**I. kapituluak "Errege Familia": 814.128 €.**

Errege Etxeko kideen zuzkidura eta ordezkari-gastuak barruan hartzen ditu: **Erregea, Erregina, Asturiasko Printzea, Asturiasko Printzesa, Elena Infanta eta Cristina Infanta**. Ondore fiskalei begira, lan-etekintzat hartzen dira.

Erregearen zuzkidura eta ordezkari-gastuen kalkulua modu honetan ezarri da:

1. 1979ko Estatuko Aurrekontu Orokorretan (Konstituzioaren 65. artikulua ezarritako kopuru orokorra biltzen ez zuten azkenak) Erregearentzat 5.100.000 pezetako zuzkidura ezarri zen, eta ordezkari-gastuetarako 5.500.000 pezeta.
2. Etxeak Tributuaren Zuzendaritza Nagusiari egindako kontsultak lotesle bati erantzunez, azken horrek ezarri zuen 1980ko ekitaldirako eta hurrengoetarako Erregearen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ) urtean zenba-

tzeko moduko diru-sarreraren zifra hurrengo hau izan zedila: Estatuko Aurrekontu Orokorretan Erregearen Familia eta Etxea mantentzeko ezarritako kopuru orokorraren %6 (Konstituzioaren 65. art.). Ehuneko hori Etxeak eta Tributuaren Zuzendaritza Nagusiak berriz aztertuko zuten kopuru orokorra etorkizunean asko aldatuz gero.

3. Etxeari esleitutako kopuru orokor horretan aldaketa garrantzitsua gertatu zen maiatzaren 6ko 434/1988 ED onetsi ondoren. Dekretu horrek Etxearen egitura eta funtzionamendua berrantolatu zituen. Etxeak Tributuaren Zuzendaritza Nagusiari egindako beste kontsulta batean, azken horrek hurrengo ezarri zuen: 1988ko zerga-alditik aurrera oinarri moduan hartuko zen Erregearen 1987ko PFEZren aitortzearen kontzeptu horregatik zenbatzeko modukoak ziren diru-sarrerak, eta aurrerantzean Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean sektore publikoko goi-kargudunen ordainsarietarako urtero ezarritako ehuneko aplikatuko zen, izaera orokorreko gehikuntza edo gutxitze moduan.

Irizpide horiek aplikatuz, 2011ko ekitaldirako, Erregeari esleitutako kopurua 140.519 € da, eta ordezkari-gastuetarako, 152.233 €.

Asturiasko printzeak, zuzkidura pertsonal moduan eta ordezkari-gastuetarako Erregeari esleitutako kopuruaren erdia jasotzen du.

Erreginak, Asturiasko printzesak eta Elena eta Cristina infantek ordezkari-gastuak soilik dituzte esleitura, Erregeak, inguruabarrak kontuan hartuta, ekitaldi bakoitzerako ezarritako ehunekoaren eta zenbatekoen arabera. 2011n gastu horietarako ezarritako kopurua 375.000 € da.

Errege-erreginak, Asturiasko printze-printzesak, eta Elena eta Cristina infantek zerga guztiak ordaindu behar dituzte. Hori dela eta, urtero PFEZ aitortpenak egin eta ordaintzen dituzte.

**II. 1. kapituluak "Pertsonalaren gastuak": 4.039.000€.**

Honela banatu da:



**10. art. Goi-kargudunak:** ordainsariak Etxeko buruari, idazkari nagusiari, Etxe Militarreko buruari eta zuzendaritza-langileei (8).

**12. art. Funtzionarioak:** ordainsariak Etxeko 2 funtzionario-ri, ekainaren 16ko 6/1976 Errege Dekretu-legearen xedapen iragankorrean bildutakoak.

**13. art. Lan-kontratudun langileak eta (14) beste langileak:** ordainsariak Etxean lan egiten duten 5 pertsonari.

**15. art. Etekinaren gaineko pizgarriak:** pizgarri hauek aparteko etekina, jarduera eta dedikazio bikaina, eginkizunak gauzatzeko interesa edo ekimena eta ohiko lanalditik kanpo egindako zerbitzuak ordaintzera bideratuta daude, hurrengo hauei begira:

1. Erregearen Etxeko 10. eta 12. artikuluen kargura ordainsariak jasotzen dituzten langileak (12 pertsona).

2. hainbat eginkizunetan lankidetzan aritzen diren eta ordainsariak beste organismo batzuetatik (Nazio Ondarea, Defentsa Ministerioa –Etxe Militarra eta Errege Guardia-, Barne Ministerioa eta Estatuko Automobil Parkea) jasotzen dituzten langileak, betiere, ordaintzen duten kasuan kasuko organismoek gastu horiei osorik aurre egiteko kredituak ez badituzte (369 pertsona normalean).

**16. art. Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak enplegu-emailearen kargura:** Erregearen Etxerako lan egiten duten langileek Gizarte Segurantzako eta Gizarte Aurreikuspeneko araubideetara egindako ekarpenak biltzen ditu, baita Erregearen Etxean lan egiten duten langileen gizarte-gastuak ere (prestakuntza, jantokiak eta gizarte-ekintza).

**III. 2. kapitulua. “Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan”:** **3.275.000€.** Artikulu eta azpikontzeptu hauen arabera banatzen dira:



**20. art. Alokairuak eta kanonak:** informazio-prozesuetarako ekipoa alokatzea (informatikakoak, ofimatikakoak, datuak transmititzekoak...) eta kanonak (lizentziak erabiltzeko eskubideak). **21. art. Konponketak, mantentzea eta kontserbazioa:** makineria txikiari, lanabesei eta ibilgailuei dagozkien gastuak. **22. art. Materialak, hornikuntzak eta besteak:** bulegoko materiala (prentsa, aldizkariak, inbentariatzeko modukoak ez den material informatikoa), komunikazioak, aseguruak, kontratuak zerbitzuen enprekin (aholkularitza teknikoak, argazkiak, albisteak...). **226.01 azpikontzeptua. Protokoloa eta ordezkariak:** atal honetan sartzen dira Errege Familiako kideek antolatutako ekitaldiak, hala nola bazkariak, harrerak, protokoloari jarraituz egin behar dituzten opariak, argazkiak barne hartuta. Ekitaldi ofizialetara eta Estatuko ekitaldietara joan behar izatetik sortutako gastuak ere barruan sartzen dira, baita kasuan kasuko organismoak ordaintzen ez dituenak ere. **23. art. Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak:** garraio, ostatu eta mantentze gastuak Etxearen kargura dauden langileek egin beharreko zerbitzu-eginkizunetarako.

**IV. 5. kapitulua “Kontingentzia Funtsa”:** **206.152€.**

Funts honen bidez aurreikusi gabeko aparteko beharrezaneri aurre egin nahi zaie.

**V. 6. kapitulua “Errege inbertsioak”:** **100.000€.**

Ibilgetuak erostea barne hartzen du, hala nola bulegoko ekipoa, informazio-prozesuetarako ekipamendua, softwarea garatzeko urte askotako lizentziak, etab.

Nos hemos unido a un equipo en el que confiamos más de 315.000 personas.

Iker Martínez y Xabi Fernández  
Medalla de Oro JJOO Atenas 2004 y Plata Beijing 2008  
Regatistas de BAT Basque Team



## gana en salud con la mayor red sanitaria

### IMQ Abogados

#### Todo lo que le pides a un seguro médico

- Sin esperas, completa cobertura sanitaria para ti y los tuyos
- Tecnología médica de vanguardia
- Centros propios y las principales clínicas privadas de Euskadi
- Libre elección entre más de 35.000 profesionales
- Prestigiosos centros a nivel nacional
- Sin copagos (excepto psicoterapia)
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza, desde sólo 5,13 €/mes\*
- Descuentos por forma de pago y por número de beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

\* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

**Exclusivo abogados desde 42,98 €/persona/mes**

Oferta exclusiva para nuevos clientes miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Consultar coberturas con franquicia. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2012. R.P.S.: 69/06

IMQ, Aseguradora Médica Oficial de **basque team**



Medicina de vanguardia

902 311 902  
agencia@imq.es  
www.imq.es



Tu seguro médico

# GALDEKETA TEKNIKEI, ESTRESAREN KONTROLARI ETA DENBORAREN KUDEAKETA ERAGINKORRARI BURUZKO IKASTARO PRAKTIKOA



Julio García Ramírez

**Beste batzuetan bezala, Praktika Juridikoko Eskolak antolatuta, galdeketa-teknikei, estresaren kontrolari eta denboraren kudeaketa eraginkorrari buruzko ikastaroa egin zen, jarduneko abokatuei trebetasunak hobetzen laguntzeko.**

Ikastaroa Julio García Ramírez abokatuak eta ISDEko Abokatuaren Trebetasunak Hobetzeko Masterraren zuzendariak eman zuen. Espainiako abokatuaren elkargoetan ezaguna da, oratoria prozesalari, argumentazio juridikoari, negoziazioari eta galdeketa-teknikei buruzko ikastaroak ematen dituelako eta liburu hauen egilea delako: "Estrategia de oratoria práctica para abogados" eta "Las cuatro habilidades del abogado eficaz. La buena práctica". Bi monografia horiek azken hamar urteetan Espainian gehien saldu diren monografia juridikoetako bi dira.

Aurkezpen labur baten ostean, ikastaroa hasteko, hizlariak galdera bat egin zuen eta bertaratuekin hitz egiten hasi zen. Guztien ustez, ikastaroko izenburuaren terminoak (galdeketa, estresa eta denbora) estu-estutik lotuta zeuden. Ondoren, Julio García termino horiek banan-banan aztertu zituen.

Artikuluaren luzerari erreparatuz, galdeketa aztertuko dugu. Hizlariak galdeketa on baten garrantzia azpimarratu zuen. Azken alegatuak ez du horrenbesteko garrantzirik, une horretan erabakia hartuta baitago. Nabarmendu zenez, epaileak frogarekin epaitzen du, eta galdeketa frogarik baliotsuenetakoa denez, hizlariak aholku batzuk eman zituen froga horiekin gure interesak defendatzea lortzeko.

Galdeketa bidez, aurkako alderdia "eraitea" lortu behar da; horren bidez gure aurkaria irabazi ezin badugu, ez du mezezi galdeketa egitea. Galdeketaekin lortzen den emaitzarik onenetakoa da galdeketa erantzuten dionak kontraesanak izatea autoetan bildutako dokumentuekin alderatuta.

Galdeketa egiteko moduari dagokionez, hizlariak eskaintako aholku bat izan zen galdeketa azken unean ez presatzea. Ideiak ez dira etortzen guk nahi dugunean, are ge-

hiago, urduri gaudenean eta ideiak behar ditugunean, ideia horiek ez dira etortzen. Modurik onena lasai egotea da. Hori dela eta, galdeketa prestatzen zenbat eta arinago hasi, ideia gehiago izango ditugu.

Galdeketa egitean, aurkako alderdiak salan sartu behar du, eta baliteke horrek beldurra ematea. Aurkako alderdiak deseroso sentitu behar du, eta enbarazu egiten dioten galderak egin behar dizkiogu. Hasiera-hasieratik eraso eginez galdeztzen da, begietara begira. Horrela, tentsioa sorraraziko dugu, eta galdeketa erantzun behar diona deseroso sentituko da.

Lekukorik onena zein den ere aipatu zen. Gizonen eta emakumeen artean, azken hori lekukotasuna emateko onena da, xehetasunak gehiago zehazten dituelako. Izan ere, garrantzirik gabeko xehetasunek lekukotza sinesgarriak eragiten dituzte; hori dela eta, gertaera bera kontatzeko gizona eta emakumea baditugu, hobe da emakumea hautatzea.

Gizonak "tunel-ikuspena" du, eta emakumeak, "ikuspen periferikoa". Lehenengoak esan nahi du interesatzen zaigun horretan bakarrik jartzen dugula arreta, hau da, interesatzen zaigun zerbait gertatzen ari bada, ingurukoak ez gara ohartuko. Horren erakusgarri da gizon gehienei futbola ikusten dutenean gertatzen zaiena: berdin da inguruan zer gertatzen den, zentzumenak partidari dituzte eta.

Adibide horrekin ulertu zen zer esan nahi zuen hizlariak. Emakumea, ikuspen horrekin, inguruan gertatzen den horretaz ohartzen da, guztiz adi egon ez arren. Hori dela eta, emakumearen lekukotza gizonak ikusi ez dituen xehetasunetaz beteta egongo da.

Baina oro har hitz egitea da hori, kasu guztietan ezin baita gauza bera esan.

Pertsonen adinari dagokionez, egokiena lekukoa adinekoa izatea da; izan ere, pertsona horiek jaso dituzten balioak eta heziketa kontuan hartuta, lekukotzak zintzoak izaten dira.

Lekukorik sinesgarriena auziarekin zerikusirik ez duena da, datu zehatz eta doiak ematen dituena, atestatuan hasieratik daudenak, azkar eta zalantzarik gabe erantzuten dutenak eta epailearen begiradari ihes egiten ez diotenak. Hizlariak bertaratuei txosten bat eman zien datu horiek guztiak bilduz. Horrez gain, sinesgarritasunik ez duten lekukotzak zein diren, galdeketa egiteko modua... ere zehaztu zituen, eta hitzaldian alderdi horiek guztiak azaldu zituen.

Edonola ere, hizlariaren esanetan, lekuko-froga hipobaloratu dago, lekuko askok gezurra esaten baitute. Bi argumenturen

“  
Oro har,  
lekuko hobeak  
izaten dira  
emakumeak  
gizonak baino  
”

“  
Garrantzitsuena  
froga da, azken  
alegatuan  
erabakia  
hartuta dago  
”

“

## Komeni da bezeroaren familakoak eta lagunak ikustaldira ez joatea

”

bidez arrazoitu zuen lekuko faltsuak ez lirartekeela inoiz eraman behar: lehenengo eta behin, arau deontologikoak hori debekatzeko duelako, eta bigarren, bezero batek ere ez duelako merezi zure lanbidea berarengatik jokoan jartzea.

Bestalde, hitzaldi osoan gauza oso egokiak esan zituen. Esaldiotako bat, “ezinezkoa da ez komunikatzea, beti komunikatzen da alde edo kontra”, lekukoek eta abokatuak salan erabili beharreko keinuen eta jantzien garrantzia azaltzeko oinarria izan zen.

Hona hemen abokatuei emandako aholkuetako batzuk: epailea modu atseginean agurtzea, irribarre handirik egin gabe, eta dotore jantzita egotea (emakumeak dotore neurritz eta gizonak dotore neurritz).

Erabiltzen ditugun osagarriak ikusita, bezeroak badaki nolakoak garen. Gure janzkerak oinarri hartuta, bezeroa jantzen dugu. Garrantzitsua da bezeroari esatea zein arropa den egokiena, zein osagarri eraman behar dituen, kolonia gehiegi ez erabiltzeko... horrek guztiak, nahi gabe, informazioa transmititzen du, eta ezin dugu ahaztu epaileak emozioak dituzten pertsonak direla.

Hizlariak adierazitakoaren arabera, gertaera berberaren inguruan bi lekuko baditugu, esango dutena berdin-berdina ez bada, ez da komeni biek deklaratzeko, bertsioak berdinak ez badira bietako bat gezurretan ari dela pentsa baitaiteke.

Interesgunea fokalizazioarekin erakusten da, hau da, ezin da dena ikusi. Lekuko batzuek, nahiz eta benetan horrela ez izan, epaitzen ari diren gertaeren inguruko guztia ikusi dutela uste dute. Jakin ez arren, eztabaidatzen ari dena nola gertatu zen esaten dute fede onez.

Lekukoa zerbait oroitzen ari denean, berreraiki egiten du. Baliteke oso ondo ez gogoratzea egotziak hankarekin edo eskuarekin jo zuen, baina ondo oroitzen du indarkeria egon zela. Hori gertatzen bada, lekukotza horrek kalte egin diezaguke; epailearen arreta dei dezakegu, eta nabarmendu dezakegu normala dela gertatutakoa oso ondo ez oroitzea, kasurik gehienetan epaiketa egiten den egunera arte igarotako denbora kontuan hartuta.



Gure uzia oinarritzeko salara perituekin joan behar dugunean, komeni da peritu horiei eskatzea hizkera ulergarriarekin hitz egin dezatela, hipotesi moduan adierazi dezatela, gauza zailak adibideen bidez formulatu daitezela... Argi dagoenak konbentzitu egiten du. Hizlariak iradoki zuen aurkako perituarri egindako galderak gure perituak egin ditzala. Adituak direnez, aurkako alderdiaren aditu-txostenean puntu ahulak non dauden esango digute.

Zuzena da gure interesak defendatuko dituen perituak epaileari azaltzea zer jaso duen txostenean. Horretarako, hurbildu egin daiteke eta argibideak eman ditzake, txostena hobeto ulertzeko.

Bestalde, García jaunaren ustez, gure bezeroak bakarrik joan beharko luke epaiketara, familiakorik eta lagunik gabe. Izan ere, horiek salara ez dira joaten epaiketa ikustera, abokatuak baloratzeraino baino.

Adibide praktikoa baten bidez erakutsi zuen kasuan interesen bat duten pertsonen lagunek edo familiakoek kalte egin dezaketela. Interesdunaren erantzunen aurrean, jendeak erreakzionatu egiten du, hitz eginez edo keinuak eginez. Hori epaileak nabaritu egiten du, eta gure bezeroari ez dio mesederik egiten. Ez du ezer laguntzen epaileak gure bezeroari laguntzen diotenak salatzen kanporatzeak.

Aurrekoa saihesteko, komenigarria izango litzateke epaiketa baino bi egun lehenago gure bezeroari esatea ikustaldira bera bakarrik joango dela. Izan ere, epaileak gaizki interpretatzen ditzake ahaideek egiten dituzten keinuak.

Epaiketaren aurretik bezeroarekin hitz egitea ezinbestekoa da gure egindako lanaz ohartzeko. Adibidez, beste alderdiarentzat prestatutako galderak erakutsi ahal dizkiogu, baina ohartarazi behar diogu agian galdera horietako bat ere ez dela egingo, epaiketan horiei guztiei erantzun zaielako.

Argi izan behar dugu eta bezeroari argi utzi behar diogu istripu judizialak gerta daitezkeela, hau da, arrazoa izan arren eta guztia ondo prestatuta izan arren, agian epaileak ez digu arrazoa emango.

Bertaratuek etengabe parte hartu zuten. Galdeketa-teknikei buruz galdera interesgarriak egin zituzten, eta Julio García guztiei erantzun zien. Zer egin lekuko bat gezurretan ari denean, nola egin galdeketa adingabe bati edo nola erreakzionatu gure lekukoak gure duguna esaten ez duenean.

Lehenengoari dagokionez, hizlariak esan zuen egokiena galdeketa erantzuten dionari begietara begiratzea dela, ikaratzeko, egia esaten ez duela erakusteko galdera zuzena aurkitzea. Galdeketa erantzuten diona adingabea denean, abokatuak adingabearen abiadura berean hitz egin behar du, legelariarekin sintonizatuta dagoela sentitu dezan. Amaitzeko, lekukoak gure interesak defendatzen laguntzen duen zerbait esaten ez badu, beste galdera bat egin behar diogu berehala.

Ezinbestekoa da abokatuak salan sartu aurretik pentsamendu positiboa izatea. García jaunak bertaratuei esan zigun ozen eta konbentzitu hurrengo esateko: “errespetatzen zaitut eta konbentzitu zaitut”. Pentsamendu hori hartu behar dugu oinarri gure buruan konfiantza gehiago izateko. Abokatuak igurikimen positiboa sortu behar du; zerbaitetaz konbentzitu behar du besteengan interpretazio hori sortzeko.

Hainbat liburu gomendatu zituen esparru horretan hobetzen laguntzeko, besteak beste: “El lenguaje del cuerpo” eta “Inteligencia no verbal”.

Amaitzeko, hizlariak iradoki zuen esparru horretan trebatzen jarraitu behar dugula. Epe laburrean gure elkargoan Abokatuaren Trebetasunei buruzko Masterra hasiko dela esan zuen, orain Madrilan eskaintzen dena. [www.juliogarciaramirez.com](http://www.juliogarciaramirez.com) web orrian hitzaldian azaldutako gai guztiak jaso dira.

“

## Argi izan behar dugu eta bezeroei argi utzi behar diegu istripu judizialak gerta daitezkeela

”

# KIROL ARBITRAJEARI BURUZKO JARDUNALDIA



Joseba Fernández,  
Santiago Merino,  
Juan Carlos Soto  
eta Javier Cortázar

Joan den apirilaren 25ean, gure elkargoko ekitaldien artoan, kirol-arbitrajeari buruzko jardunaldia egin zen, BJABOko Arbitraje Gortek antolatuta. Jardunaldiaren aurkezpena Luis Mari Cordero Martínez Gorteko idazkariak egin zuen.

Lehenengo hizlaria Cristina Górgolas Medel and. Izan zen, BJABOko Arbitraje Gorteko lehendakaria. Cristinak Arbitrajeari buruzko 60/2003 Legearen erreformak aztertu zituen. Lehenengoak, 13/2009 Legeak (bulego judizial berriari buruzkoa), arbitrajearen duen eragin bakarra da une horretatik aurrera idazkari judizialak deituko dituela alderdiak, eta aurretik auzitegiak egiten zuen.

Aldaketa nagusia maiatzaren 20ko 11/2011 Legeak, besteak beste, gai hauek aldatzen ditu: eginkizun judizialak berriz esleitzen dira, justizia auzitegiatiko zigor arloko eta arlo zibileko salei esleitzen zaie arbitroak berriz izendatzeko eta

“

**Laudo irmoaren eta behin betikoaren arteko bereizketa kendu da, biak nahitaez bete beharrekoak dira**

”

atzerriko laudoak aitortzeko eskumena. Lehen auzialdian laudoak betearaziko dira, naziokoak zein atzerrikoak. Bestalde, deklinatoria modu zehatzean arautzen da.

Erreformen bi artikuluko berri sartu dira, 11 bis eta 11 ter, estatutu-arbitrajeari eta inskribatzeko moduko sozietate-akordioak laudo bidez ezeztatzeari buruzkoak.

Bestalde, arbitro moduan esku har dezaketen profesionalen abenikoa zabaldu da: lehen jarduneko

abokatuak soilik izan zitezkeen, baina gaur egun baita legegariak ere. Bitartekariak ezin du arbitro izan, alderdiek hala nahi ez badute behintzat. Erreformatik arurera, arbitroari edo erakundeari eskatzen zaio erantzukizun zibilekoa seguru kontrata dezala.

Hizkuntzaren gaia ere aldatu da. Edozein alderdik nahi duen hizkuntzan hitz egin dezake, eta edozein pertsona izan daiteke itzultzailea, zin egin eta gero.

Laudoaren epeari eta formari dagokionez, 6 hilekoa da, eta alderdiek aurkako akordiorik egiten ez badute, behin betiko laudoa eman gabe epea agortzeak ez du eraginik izango arbitraje-hitzarmenaren eraginkortasunean eze mandako laudoaren baliagarritasunean, arbitroek izan dezaketen erantzukizuna gorabehera. Edonola ere, motibazioa eskatzen da eta neurria modu partzialean gainditzea zuzentzeko prozedura gehitu da.



Luis Mari Cordero

Ahozko epaiketak, laudoa ezeztatzean eta berrikustean, berezitasunak izango ditu: errekurtsioa aurkezten da, beste alderdiari helarazten zaio eta alderdiek ikustaldia eskatu beharko dute; eskatzen ez bada, ez da ikustaldirik egongo (batzuetan, eskatu arren, auzitegiak bidezkoa ez dela pentsatzen badu, ez da ikustaldirik egongo).

Bestalde, laudo irmoaren eta behin betikoaren arteko bereizketa kendu da, biak nahitaez bete beharrekoak dira eta gauza epaituaren ondorea du.

Amaitzeko, hizlariak maiatzaren 20ko 5/2011 Lege Organikoa labur aipatu zuen, 11/2011 Legearen osagarria dena. Lege horretako atalik garrantzitsuen Merkataritza arloko Epaitegiari arlo horretako laudoak betearazteko eskumena esleitzen zaiola da.

**IRAGARKI  
TAULA  
TABLÓN DE  
ANUNCIOS**

SE ALQUILAN despachos individuales dentro de un despacho colectivo. MUY CENTRICO" Interesados llamar al tf. 685.75.85.68

SE VENDE OFICINA-DESPACHO profesional de 82 m<sup>2</sup>, (Hall con 2 puestos de administración, 2 amplios despachos, 2 salas de reuniones y 2 aseos) amueblado y equipado en perfecto estado, C/ Ercilla 31. Interesados llamar al Tlf. 608.177.331"



## 11/2011 Legeak kirol-klubak ahaztu ditu?



Arratsaldeko bigarren hizlaria Santiago Merino Hernández jn., Euskadiko Kooperatiben Kontseilu nagusiko bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetze zerbitzuko legelaria, izan zen. Arbitraje kooperatiboari buruz hitz egin zuen.

Hizlariak arbitrajearen bilakaera historikoa aipatu zuen. 1982ko

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10. artikuluan, 23. puntuan, arbitrajea instituzionalizatzea aipatzen zen. 1989ko erregelamendua ere garrantzitsu aizan zen; izan ere, bertako printzipioak (arbitrariotasunean eskusibotasuni kez egotea, doakotasuna, beharrezkotasuna...) gaur egun funtsezkoak dira.

Jurisprudentiak, arbitrajearen inguruan, hiru une nagusi bizi izan ditu: gizarte-akordioak arbitrajea erabiliz aurkaratzeak aldeko epaiak izan zituen 1905ean eta 1907an. Hala ere, 50eko hamarkadatik aurrera, guztiak aurkakoak ziren, prozedura prozesalaren espezializazioa argudiatzen zuten eta. Edonola ere, notarioen eta erregistratzaileen 1998ko ebazpenetik aurrera beste irizpide bat egon zen: akordioetako itunek oraingoetarako eta etorkizunekoetarako lotesleak izango dira.

Hizlariaren esanetan, 60/2003 Legea ez da funtsezko aizan, 1988ko Legea baino. Hala ere, ezin da ukatu 2003ko Legeak alderdi positiboak dituenik, hala nola arbitraje-erakundea modernizatzea Europan eta nazioarteko arbitrajeari buruzko joera berriak gehitzea. Erakunde berezitua sortu da, nortasun juridiko berezko, arin, praktiko eta eraginkorra duena.

Hizlariak 11/2011 Legeari buruzko gogoeta egin zuen: hizlariaren esanetan, Legeak kapital-sozietateei buruz hitz egin du, baina gizarte-ekonomiako sozietateak ahaztu ditu, hala nola kirol-klubak?

Azken hizlaria Juan Carlos Soto del Castillo jn., kirol-zuzenbideko abokatu espezialista eta Kirol Zuzenbideko Euskal Elkarte lehendakariordea, izan zen. Kirol Arbitrajeko Euskal Auzitegiari buruz hitz egin zuen.



Hitzaldiaren hasieran esan zuenez, antolaketa-egiturek autogobernu-asmoa dute. Arbitrajeko Euskal Auzitegia da kirol esparruan gatazkak ebatzi nahi dituen organoa; federazioek horretara jotzeko betebeharra duten arren, orain arte auzitegiara ez dira hogeia iritsi.

Organoa akordio asanbleario bat dela bide sortu zen. 2006an jarri zena baina eta ordutik ez du aldaketarik izan. Bestalde, KAA ere aipatu zuen, hemengo auzitegiaren adibide moduan. KAA Nazioarteko Batzorde Olinpiarretik kanpo dago, eta horregatik ospea lortu du.

Amaitzeko, auzitegiaren organoak azalduz ituen: batzorde betearazlea eta Arbitraje Gortea. Besteak beste, hurrengo aipatu zuen: batzordeak bost kide ditu, horiek prestakuntza juridiko behar den bestekoa edo ospea dute kirolaren munduan eta batzordeak ez du finantza-erregelamendurik.

Jardunaldia ixteko, mahai-ingurua egin zen, eta hurrengo hauek parte hartu zuten: Santiago Merino jn., Joseba Fernández jn. eta Javier Cortázar jn. Juan Carlos Soto jn. izan zen moderatzailea. Mahai-inguruan Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-arbitrajeari buruz etzabaidatu zen.



**Arbitrajeko Euskal Auzitegia abian jarri denetik, auzitegiara ez dira hogeia iritsi**



## Soluciones integrales de Gestión Documental, Facturación Electrónica y Certificación Digital.

Sistemas Digitales Multifunción.

Fax.

Informática Profesional.

Gestores Documentales.

**selzur**  
SOCIO TECNOLÓGICO

Plaza Ibaiondo, 4 - P. Empresarial Ibaiondo  
48940 LEIOA Bizkaia  
Tlf.: +34 94 4425216 · Fax: +34 94 4425843  
e-mail: administracion@selzur.com

[www.selzur.com](http://www.selzur.com)





## PASA DEN HILABETEAN BAZKUNeko LIBURUTEGIAK EROSI DITUEN LIBURUEN ARTEAN, HURRENGO HAUEK INTERESGARRIAK IRUDITZEN ZAIZKIGU:

### TRATADO DE DERECHO DE LA FAMILIA



**Mariano Yzquierdo y Matilde Cuenca (dir.)**  
Thomson

➤ Hau ez da familia zuzenbideari buruzko tratatua, familiaren zuzenbideari buruzkoa baino. Liburuan familiaren azterketa egiten da antolamendu juridikoaren arlo desberdinetatik, pribatutik eta publikotik hain zuzen ere. Beraz, familia zuzenbide zibil klasikoa eta zuzenbide zibileko beste gai batzuk ere agertzen dira, familia oinarri hartuta, hala nola erantzukizun zibilaren eta kontratu-zuzenbidearen alderdi batzuk; horrez gain, nazioarteko zuzenbide pribatua, prozesala, zigor arlokoa, konstituzio-zuzenbidea, administrazio-zuzenbidea, lan arlokoa, tributu arlokoa eta merkataritzakoa aipatzen dira.

64 kapitulu hamabi mila orrialde ingurutan, zortzi liburukitan banatuta. 70 egilek orain arte merkatuan ezezaguna zen lana egiteko ahaleginak elkartu dituzte. Orain arte, familia ez da zuzenbide pribatuaren eta publikoaren angelu guztietatik jorratu lan berean. Tratatu honetan bat egin dute unibertsitateko profesionalek, notaritzakoek, jabetza erregistrokoek, abokatuen bulego garrantzitsuek, epaileek eta Gizarte Segurantzako adituek.

### LOS CRÉDITOS PROCESALES DE PROCURADORES, ABOGADOS, PERITOS Y TESTIGOS: SOLUCIONES DE LA PRÁCTICA PENAL PARA LAS JURAS DE CUENTAS



**Miguel Ángel López Muñoz**  
Dykinson

➤ Eskubideak eta ordainsariak erreklamatzeko espedientea, praktika forentsean kontuen zina deitzen dena, gure antolamendu juridikoko prozedurarik bizkorrena da, eta modu eksklusiboan erreserbatuta dago prokuradoreek eta abokatuek edozein auziren barruan egindako zerbitzu profesionalak ordaintzea erreklamatzeko. Monografia honetan mini prozesu laburtu, exekutibo eta (doktrina batzuen arabera) pribilegiatu horren gorabeherak aztertzen dira. Lanean, erakundearen analisia eta garapen teorikoa egiteaz gain, jurisprudentzia aplikatuaren hautaketa interesgarri bat, prozedura eta errekurtsioak argitzen dituzten eskemak eta 19 inprimaki gehitzen dira. Kapitulu bat perituek eta lekukoek prozesuan parte hartzetik eratorritako eskubide ekonomikoei eskainita dago, baita horiek erreklamatzeko bideei ere. Lanaren amaieran galdera-erantzunen atala dago, aduana-zergen eskubideak, ordainsari profesionalak edo Justizia Administrazioarekin lan-kidetzan aritzeagatik kalte-ordainak erreklamatzeko prozedura aurkeztu, aurkaratu, izapidetu edo ebatzi behar duten guztientzat interesgarriak izan daitezkeenak.

### MEMENTO EXPERTO. DACIÓN DE INMUEBLES EN PAGO DE DEUDAS



**Ediciones Francis Lefebvre**

➤ Memento Experto Dación de Inmuebles en Pago de Deudas. Implicaciones Fiscales lanean ematearen ondorioak sakon aztertzen dira, emandakoa zergapekoaren ohiko etxebizitza denean. Lan honetan gaurkotasan handiko erakunde juridiko horren izaera juridikoa eta inplikazio fiskalak aztertzen dira, jurisprudentzian kontzeptuaren eta ezaugarrien inguruan dauden jarraiek aztertuz. Erreminta praktikoa da, eta xede nagusia ordainean emateak eragindako ondorio fiskal nagusiak argitzea da, adibide ugari emanda. Memento Experto Dación en Pago de la Vivienda Habitual lanean, arlo horren inplikazio fiskalak aztertzen dira zerga hauei dagokienez: Balio Erantsiaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga. Ezinbesteko lana da errealtate juridiko horren ondorio fiskalak azkar, argi eta zuzen ezagutzeko. Eta Memento sistematikaren abantailak ditu: zorrotasun teknikoa eta informazioa eskuratzeko bizkortasuna.



## BAZKUNEKO LIBURUTEGIAK EROSITAKO BESTE LIBURU BATZUK

### ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEA

**Tratado del sector público estatal**, Morales Plaza, Antonio (coord.), (otros) La Ley (Madrid)

**La contratación del sector público tras las reformas de 2010**, Canales Gil, Alvaro Huerta Baraja, Justo Alberto Reus (Madrid)

**Administración electrónica: la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos y los retos jurídicos del gobierno en España**, Cotino Hueso, Lorenzo (coord.), Valero Torrijos, Julián (coord.), Tirant lo Blanch (Valencia)

**Instrumentos españoles de colaboración público - privada: el contrato de concesión de obras públicas**, Menéndez Menéndez, Adolfo (dir.), Álvarez González, Jorge (otros), Civitas (Cizur Menor)

**Patrimonio local y registro de la propiedad: especial referencia a las inscripciones derivadas de actuaciones urbanísticas**, Arnaiz Ramos, Rafael Bayer (Barcelona)

**El nuevo tribunal administrativo central de recursos contractuales: y la modificación de la legislación de contratos públicos y de la jurisdicción contencioso - administrativa por la ley 34/2010, de 5 de agosto**, Pulido Quecedo, Manuel Aranzadi (Cizur Menor)

**Buenas practicas para entidades financieras en materia de protección de datos de carácter personal**, Ortega Giménez, Alfonso, González Martínez, José Antonio difusión jurídica y temas de actualidad (Madrid)

**Convenios y contratos administrativos: transacción, arbitraje y terminación convencional del procedimiento**, Bustillo Bolado, Roberto Aranzadi (Cizur Menor)

**Manual practico orientativo de derecho de la nacionalidad**, Ortega Giménez, Alfonso (coord.) (otros) difusión jurídica y temas de actualidad (Madrid)

**Respuestas memento 1000 preguntas sobre administrativo**, Melón Pardo, Carlos (otros) Francis Lefebvre (Madrid)

**Contrato de concesión de obra pública**, Rodríguez López, Pedro Bosch (Barcelona)

**Las acciones confesoria y negatoria de servidumbre: aspectos sustantivos y procesales (formularios, legislación y doctrina jurisprudencial)**, Domínguez Moya, Oscar Tirant lo Blanch (Valencia)

### ZUZENBIDE ZIBILA

**Las acciones confesoria y negatoria de servidumbre: aspectos sustantivos y procesales (formularios, legislación y doctrina jurisprudencial)**, Domínguez Moya, Oscar Tirant lo Blanch (Valencia)

**Los titulares de derechos frente a la afección urbanística y en propiedad horizontal**, Gil de Pareja, Cesareo Aranzadi (Cizur Menor)

**Relaciones paterno - filiales**, Serrano Castro, Francisco de Asís El derecho (Madrid)

**Medio ambiente y uso del suelo protegido: régimen jurídico civil, penal y administrativo**, Martínez Martínez, María Iustel (Madrid)

**La mediación familiar en España: fundamento, concepto y modelos jurídicos**, Rodríguez Llamas, Sonia Tirant lo Blanch (Valencia)

**Los daños recíprocos sin culpas probadas en la responsabilidad civil automovilística**, Medina Crespo, Mariano Bosch (Barcelona)

**La custodia de los hijos: la guarda compartida (opción preferente)**, Delgado del Rio, Gregorio Civitas (Cizur Menor)

**Régimen jurídico de los consumidores: competencia judicial internacional y ley aplicable**, Castellanos Ruiz, Esperanza Comares (Granada)

### NAZIOARTEKO ZUZENBIDEA

**Aplicación judicial del derecho extranjero en materia de familia: contiene legislación peruana, ecuatoriana, colombiana, marroquí y rumana**, Calvo Babio, Flora Tirant lo Blanch (Valencia)

### LAN ZUZENBIDEA

**El régimen profesional y de seguridad social de los trabajadores autónomos**, López Gandía, Juan Toscani Jiménez, Daniel El Derecho (Madrid)

**La extinción del contrato de trabajo**, Toscani Jiménez, Daniel El Derecho (Madrid)

**La contratación laboral tras la reforma de 2010: guía para su seguimiento**, Tarancon Pérez, Encarna, Romero Rodenas, M<sup>a</sup> José Bomarzo (Albacete)

**El trabajador autónomo económicamente dependiente: delimitación conceptual y ámbito de aplicación**, Hernández Martínez, Miren Aranzadi (Cizur Menor)

**El plan de igualdad y la responsabilidad social de la empresa**, González Martín, Adrián (coord.), Fuster Giménez, M<sup>a</sup> Belén (otros) Lex Nova (Valladolid)

### MERKATARITZA ZUZENBIDEA

**Guía practica de sociedades anónimas**, AAVV El Derecho (Madrid)

**Guía practica de sociedades de responsabilidad limitada**, AAVV El Derecho (Madrid)

**Tratado practico de propiedad industrial**, García - Chamón Cervera, Enrique (otros) El Derecho (Madrid)

**Comentarios a la propuesta de reforma de la ley concursal**, Gómez Martín, Fernando Aranzadi (Cizur Menor)

**Transmisiones de empresas y modificaciones estructurales de sociedades**, Beneyto Pérez, José M<sup>a</sup> (dir.) Alonso Ledesma, Carmen (otros) Bosch (Barcelona)

**La insolvencia en el contrato de descuento bancario**, Bañuls Gómez, Francisco - Alexis Civitas (Cizur Menor)

**Régimen jurídico de la empresa familiar**, Sánchez Ruiz, Mercedes (coord.) Diez Soto, Carlos Manuel (otros) Civitas (Cizur Menor)

**Conflictos en torno a los patrimonios personales y empresariales**, Garrido Melero, Martín (coord.) Fugrdo Estivill, Josep M<sup>a</sup> (coord.) Albiez Dohrmann, Klaus Jochen (otros) Bosch (Barcelona)

**Mercado y competencia**, Veleiro Reboredo, Belén El Derecho (Madrid)

### ZIGOR ZUZENBIDEA

**Nuevo código penal: el juicio de faltas (análisis práctico y formularios de aplicación)**, Illan Fernández, José M<sup>a</sup> Aranzadi (Cizur Menor)

**Medidas judiciales de protección de las víctimas de violencia de género: especial referencia a la orden de protección**, Gutiérrez Romero, Francisco M. Bosch (Barcelona)

**Condenas penales privativas de libertad y de derechos: actualizado a la reforma del código penal 2010 (L.O. 5/2010)**, Cordero Lozano, Carlos Bosch (Barcelona)

**Dopaje, intimidación y datos personales: especial referencia a los aspectos penales y político - criminales**, Doval País, Antonio (dir.) Sánchez - Moraleda, Natalia (coord.), (otros) Iustel (Madrid)

### ZUZENBIDE POLITIKOA

**Derechos fundamentales y condición militar**, Gómez Martínez, Ramón Civitas (Cizur Menor)

**Repercusiones sobre el proceso penal de la ley orgánica 5/2010, de reforma del código penal**, Gascón Inchausti, Fernando (otros) Aranzadi (Cizur Menor)

### ZUZENBIDE PROZESALA

**Tutela judicial de los consumidores y transacciones colectivas**, Gascón Inchausti, Fernando Civitas (Cizur Menor)

**El convenio arbitral: su eficacia obligatoria**, Benito Llopis - Llombart, Marco de Civitas (Cizur Menor)

**El proceso monitorio**, Mendez Tomas, Rosa M., Santos Martinez, Alberto M. Bosch (Barcelona)

**Memento práctico procesal penal 2012: La ejecución del laudo arbitral**, Pardo Iranzo, Virginia Civitas (Cizur Menor)

**Los procesos de amparo: civil, penal, administrativo, laboral, constitucional y europeo**, Gimeno Sendra, Vicente, Morenilla Allard, Pablo Colex (Madrid)

### INFORMAZIOAREN GIZARTEA

**La historia clínica: deberes del responsable del tratamiento y derechos del paciente**, Gil Membrado, Cristina Comares (Granada)

**Código de derecho informático y de las nuevas tecnologías**, Gallego Higuera, Gonzalo F. Civitas (Cizur Menor)

### HIRIGINTZA

**Estudios sobre derecho de la edificación**, Cañizares Laso, Ana Aranzadi (Cizur Menor)

### BESTEAK

**Mediación, arbitraje y resolución de conflictos en el siglo XXI**, García Villaluenga, Leticia (coord.), (otros) Reus (Madrid)



## DERECHO FISCAL

➤ **Norma Foral 1/2012, de 29 de febrero**, por la que se aprueban **medidas transitorias para 2012 y 2013 y otras medidas tributarias**. (BOB 8-3-12).

Entre las novedades introducidas destacan las siguientes:

1.- **Modificaciones en el IRPF:** a) En las rentas del ahorro tributarán los primeros 10.000 euros a un tipo fijo del 20% y el resto al 22%. b) La reducción de la base imponible general por aportaciones a sistemas de previsión social se reduce de 8.000 a 6.000 euros anuales, en los sistemas individuales, manteniéndose en 8.000 para las contribuciones empresariales, pero con un límite conjunto anual de 12.000 euros.

La deducción para mayores de 65 años se reduce paulatinamente para bases imponibles a partir de 30.000 euros hasta su eliminación a partir de los 35.000 euros.

Se incrementa en 50 euros anuales la deducción por descendientes entre 6 y 16 años.

La deducción máxima por inversión en vivienda habitual se reduce a 2.160 euros, y se limita el porcentaje incrementado del 23% a aquellos contribuyentes menores de 30 años, en lugar de 35 como hasta ahora.

2.- **En cuanto al Impuesto sobre Sociedades**, se establece que las bases imponibles negativas de ejercicios anteriores que hayan sido objeto de liquidación o autoliquidación podrán ser compensadas, con un límite del 70%, con la renta positiva del período impositivo.

Se limita la suma de las deducciones aplicables en el ejercicio, que no podrán exceder conjuntamente del 35 por 100 de la cuota líquida, en lugar del 45 por 100 actual.

3- En relación con el **Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones**, y con efectos desde el día 1 de abril de 2012, se elimina la exención en las donaciones para familiares directos, pasando a tributar a un tipo único del 1,5 por 100.

4.- En lo referente a **Haciendas Locales**, se incluye, además de la tasa por licencia previa, una tasa para la verificación posterior del cumplimiento de los requisitos establecidos en el caso de actividades no sujetas a autorización o control previo.

5.- Con respecto a la **Norma Foral General Tributaria**, se prevé la posibilidad de que la Administración tributaria pueda establecer la obligatoriedad de comunicarse con ella utilizando sólo medios electrónicos, cuando los interesados se correspondan con personas jurídicas o colectivos de personas físicas que por razón de su capacidad económica o técnica, dedicación profesional u otros motivos acreditados tengan garantizado el acceso y

disponibilidad de los medios tecnológicos precisos, y se incluye la posibilidad de realizar notificaciones por comparecencia de forma electrónica. Asimismo, se adecúa a NFGT a la Ley Concursal.

➤ **Orden Foral 528/2012, de 5 de marzo**, por la que se aprueba la **declaración de residencia fiscal a efectos de aplicar la excepción a la obligación de retener sobre los rendimientos de las cuentas de no residentes**. (BOB 9-3-12).

➤ **Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 50/2012, de 20 de marzo**, por el que se regulan las **notificaciones y comunicaciones por medios electrónicos del Departamento de Hacienda y Finanzas**. (BOB 23-3-12).

## DERECHO LABORAL Y DE SEGURIDAD SOCIAL

➤ **Ley 4/2012, de 23 de febrero**, de Lan Harremanen Kontseilua / **Consejo de Relaciones Laborales**. (BOPV 5-3-12)

➤ **Ley 5/2012, de 23 de febrero**, sobre **Entidades de Previsión Social Voluntaria**. (BOPV 6-3-12).

## OTROS

➤ **Real Decreto-ley 5/2012, de 5 de marzo**, de **mediación en asuntos civiles y mercantiles**. (BOE 6-3-12).

Mediante este Real Decreto-ley se incorpora al Derecho español la Directiva 2008/52/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 21 de mayo de 2008, sobre ciertos aspectos de la mediación en asuntos civiles y mercantiles. Resultará de aplicación a las mediaciones en asuntos civiles o mercantiles, incluidos los conflictos transfronterizos, siempre que no afecten a derechos y obligaciones que no estén a disposición de las partes en virtud de la legislación aplicable. En defecto de sometimiento expreso o tácito, la misma será aplicable cuando, al menos, una de las partes tenga su domicilio en España y la mediación se realice en territorio español.

Quedan excluidos, en todo caso, del ámbito de aplicación de este real decreto-ley:

- La mediación penal.
- La mediación con las Administraciones Públicas.
- La mediación laboral.
- La mediación en materia de consumo.

Asimismo, se reforma, así, la Ley 3/1993, de 22 de marzo, Básica de las Cámaras Oficiales de Comercio,

Industria y Navegación, para incluir entre sus funciones, junto al arbitraje, la mediación, permitiendo así su actuación como instituciones de mediación.

Se modifica la Ley de Enjuiciamiento Civil en los preceptos necesarios para la inclusión del acuerdo de mediación dentro de los títulos que dan derecho al despacho de la ejecución.

También se reforma la Ley 34/2006, de 30 de octubre, sobre el acceso a las profesiones de Abogado y Procurador de los Tribunales, con el objetivo de dar satisfacción a las legítimas expectativas de los estudiantes de Derecho que, en el momento de la publicación de aquella ley, se encontraban matriculados en sus estudios universitarios y, como consecuencia de la publicación de la misma, ven completamente alteradas las condiciones de acceso a las profesiones de abogado y procurador.

Por último, se contempla la situación de los poseedores de títulos extranjeros susceptibles de homologación al título español de Licenciado en derecho, mediante la introducción de una nueva disposición adicional que permite acceder a las profesiones jurídicas a quienes hubiesen iniciado el procedimiento de homologación antes de la entrada en vigor de la Ley.

➤ **Real Decreto-ley 6/2012, de 9 de marzo**, de **medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos**. (BOE 10-3-12).

➤ **Ley 3/2012, de 16 de febrero**, por la que se modifica la **Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y la Ley sobre Creación de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer**. (BOE 16-3-12).

➤ **Real Decreto-ley 8/2012, de 16 de marzo**, de **contratos de aprovechamiento por turno de bienes de uso turístico, de adquisición de productos vacacionales de larga duración, de reventa y de intercambio**. (BOE 17-3-12).

➤ **Orden JUS/615/2012, de 1 de marzo**, por la que se regula la **duración de la jornada general de trabajo en cómputo anual y las de las jornadas en régimen de dedicación especial para el personal al servicio de la Administración de Justicia**. (BOE 28-3-12).

➤ **Decreto 38/2012, de 13 de marzo**, sobre **historia clínica y derechos y obligaciones de pacientes y profesionales de la salud en materia de documentación clínica**. (BOPV 29-3-12).

➤ **Decreto 43/2012, de 27 de marzo**, por el que se crea el **Programa de Intermediación en el Mercado de Alquiler de Vivienda Libre ASAP** (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa). (BOPV 30-3-12).



## ZERGA ZUZENBIDEA

> **1/2012 Foru Araua, otsailaren 29koa, 2012rako eta 2013rako zenbait xedapen iragankor eta zergen arloko beste neurri batzuk** onartzen dituena (BAO 12-3-8). Besteak beste, honakoak azpimarratzekoak dira:

1.- **Aldaketak PFEZn:** a) Aurrezkiaren errenten tributazioa: lehenengo 10.000 euroek %20ko tasa finkoan tributatuko dute, baina aurrezkiaren gainerako errentek, berriz, %22an tributatuko dute. b) Bestalde, mugatu egingo dira gizarte-aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenak direla-eta zerga-oinarri orokorrean egin daitezkeen kenkariak: horretarako atalasea 8.000 eurotik 6.000 eurora jaitsi da, banakako sistemetan, eta lehenetsuna emanez enpresa ekarpenei. Halaber, urteko gutzirako muga 12.000 eurokoa izango da.

65 urtetik gorako zergadunentzako kenkari kasuan, mantenduko da 30.000 eurotik beherako zerga-oinarria dutenentzat, baina kenkari hori gutxituz joango da zerga-oinarria handitu ahala, 35.000 eurotik gorakoa dutenen kasuan zero izateraino.

Kenkari pertsonalen arloan betiere, 6 eta 16 urte arteko ondorengo ahaide bakoitzeko urtean 50 euroko kenkari osagarria egitea proposatzen da.

Ohiko etxebizitza erosteagatik kenkaria ere txikitu egingo da: 1.800 eurora jaitsiko da; 30 urtetik beherako zergadunek bakarrik ahal izango dute aplikatu %23ko portzentajea, eta ez 35 urtetik beherakoek, orain arte egiten zuten bezala.

2.- **Sozietateen gaineko Zergan** aurreko ekitaldietan likidatu edo autolikidatu zituzten zerga-oinarri negatiboak zergaldiko errenta positiboarekin konpentsatu ahal izango dituzte, baina aldatu egin da horretarako dagoen muga: aurrerantzean, gehienez ere, oinarri negatiboen %70 konpentsatu ahal izango dute.

Aurreko neurriari lotuta, zergadun horiek mugatu egingo zaie, bi zergaldi horietan, Sozietateen gaineko Zergan ekitaldi baten barruan izan dezaketen kenkari batura: ekitaldi bi horietan, kenkari guztien baturak ezingo du kuota likidoaren %35 gainditu; orain, aldiz, %45 da muga.

3.- **Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari** dagokionez, eta 2012ko apirilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zuzeneko ahaideei egindako dohaintzak ez dira salbuetsita egongo: 100eko 1,5eko tasan zergapetuko dira horrelako dohaintzak.

4.- **Toki Ogasunei** dagokionez, lizentzia emateagatik aurreitazio tasa ezartzeaz gainera, beste tasa bat ezarriko da, aurretik baimenik edo kontrolik eskatzen ez zaien jarduerak legedian ezartzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeagatik.

5.- **Zergei buruzko Foru Arauari** dagokionez, jakinarazpenei buruzko artikulua aldatuko da, Zerga Administrazioak erabaki ahal dezan administrazioarekin

komunikatzeko nahitaezkoa dela bitarteko elektronikoa soilik erabiltzea. Hain zuzen ere, interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoak taldeak direnean hartu dezake erabaki hori, baina baldin eta berrak badago pertsona horiek, beren ahalmen ekonomiko edo teknikoagatik, dedikazio profesionalagatik edo egiaztatutako beste arazo batzuegatik, beharrezkoak diren bitarteko teknologikoa izango dituztela eta bitartekook erabilgarri izango dituztela. Bertaratuta egin beharreko jakinarazpenak modu elektronikoa egiteko aukera ere jasotzen da. Halaber, aldaketa batzuk egin dira Zergei buruzko Foru Arauan, foru arau hori urriaren 10eko 38/2011 Legeak Konkurtso Legean eragin dako aldaketetara egokitzearen.

> **528/2012 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa,** honen bidez, zerga-egoitzaren aitorpena onartzen da, ez-egoiliarren kontuen etekin gaineko atxikipenei buruzko salbuespena aplikatzeko (BAO 12-3-9).

> **Bizkaiko Foru Aldundiaren 50/2012 Foru Dekretua, martxoaren 20koa,** honen bidez, Ogasun eta Finantza Sailak bitarteko elektronikoa erabiliz egiten dituen jakinarazpenak eta komunikazioak arautzen dira (BAO 12-3-23).

## LAN ZUZENBIDEA ETA GIZARTE SEGURANTZA

> **4/2012 Legea, otsailaren 23koa,** Lan Harremanen Kontseiluari buruzkoa (EHAA 12-3-5).

> **5/2012 Legea, otsailaren 23koa,** Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeena (EHAA 12-3-6).

## BESTELAKOAK

> **5/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 5ekoa,** auzi zibil eta merkataritzako bitartekaritza buruzkoa (BOE 12-3-6).

Errege lege-dekretu honek Espainiako Zuzenbidean txertatu du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko maiatzaren 21eko 2008/52/EE Zuzentaraua, gai zibilen eta merkataritza-gaien inguruko bitartekaritzako alderdi batzuei buruzkoa.

Errege lege-dekretu hau gai zibiletako edo merkataritzako bitartekaritzetan aplikatuko da, baita mugaz haraindiko gatazketan ere; betiere, aplikatu beharreko araudiaren arabera, alderdien esku ez dauden eskubide eta betebeharrei eragiten ez badiete.

Alderdiak errege lege-dekretu honi espre-suki edo tazituki men egin ezean, berau aplikatuko da gutxienez alderdietako batek helbidea Espainian duenean eta bitartekaritza Espainiako lurraldean egiten denean. Nolanahi ere, ondoko hauek errege lege-

dekretu honen eremutik kanpo geldituko dira:

- a) Zigor arloko bitartekaritza.
- b) Herri-administrazioekiko bitartekaritza.
- c) Lan arloko bitartekaritza.
- d) Kontsumo arloko bitartekaritza.

Halaber, erreformatu egin da martxoaren 22ko 3/1993 Oinarrizko Legea, Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialei buruzkoa, haien eginkizunen artean bitartekaritza sartzeko, arbitrajearekin batera; era horretan, bitartekaritza-erakunde gisa jardun ahal izango dira.

Prozedura Zibileko Legean, era berean, hainbat manu aldatu ditu, betearazpena bideratzeko eskubidea ematen duten tituluetan bitartekaritza-akordioa jasotzeko.

Era berean, Errege lege-dekretu honek urriaren 30eko 34/2006 Legea, abokatu-tzan eta auzitegi-tako prokuradoretzan sartzeari buruzkoa, erreformatu du, erantzun egokia ematearren lege hori argitaratu zenean unibertsitate-ikasketetan matrikulatuta zeuden Zuzenbide-ikasleei, legea argitaratzean goitik behera aldatuta ikusi baitzituzten abokatutzan eta prokuradoretzan sartzeko baldintzak.

Azkenik, Zuzenbidean lizentziadunaren Espainiako tituluarekin homologa daitezkeen atzerriko tituluak dituztenen egoera ere jaso du; hartarako, xedapen gehigarri berri bat sartu du, homologazio-prozedura Legea indarrean sartu baino lehen hasi dutenek lanbide juridikoetan sartzeko aukera izan dezaten.

> **6/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 9koa,** balibiderik ez duten hipoteka-zordunak babesteko presako neurri buruzkoa (BOE 12-3-10).

> **3/2012 Legea, otsailaren 16koa,** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen sortzeko Legea aldatzeko dena (BOE 12-3-16).

> **8/2012 Errege Lege Dekretua, martxoaren 16koa,** turismo-ondasunak txandaka aprobetxatzeko kontratuei, iraupen luzeko opor-produktuak eskuratzeko kontratuei, birsaltze-kontratuei eta truke-kontratuei buruzkoa (BOE 12-3-17).

> **IUS/615/2012 Agindua, martxoaren 1ekoa,** Justizia Administrazioaren zerbitzuko langileen lanaldi arruntak eta ardura bereziko lanaldiek urtean izango dituzten ordu-kopuruak arautzen dituena (BOE 12-3-28).

> **38/2012 Dekretua, martxoaren 13koa,** historia klinikoari eta osasun-arloko paziente eta profesionalen dokumentazio klinikoaren arloan dituzten eskubide eta obligazioei buruzkoa (EHAA 12-3-29).

> **43/2012 Dekretua, martxoaren 27koa,** merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritzako ASAP programa sortzeko dena (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa). (BOPV 12-3-30).



## TODO



Egilea:  
**Kevin Canty**

Itzulpena:  
Damia Alou

Libros del Asteroide, 2012.  
272 or.; 18,95€

Lan honen atzeko azalean hau irakur daiteke: "Montana estatuko herri batean girotuta dago, eta herriaren edertasuna eta izaera pertsonaiaetan islatzen dira. "Todo" bigarren aukerei buruzko eleberria da (...)"

Zorionak ematen dizkiot editoreari sintesia egiteko duen gaitasunarengatik. Izan ere, berarentzat ez zen erraza izango esaldi bakar batean laburtzea eleberriaren ideia nagusia. Eleberri honen erreseña egitea zaila da Kevin Canty (California, 1953) kontatzen digun istorioak harrapatu ezin den zerbait dauka eta. Idazleak sentimendu nahasiei buruz hitz egiten digu. Pertsonaiak bizimoduaren giltzarrietan daude. Zalantzak dituzte, balantzea egiten dute, gogoeta egiten dute, eta bate zere, helburu bat bilatzen dute. Zentzua aurkitu behar dute, jomuga bat izan behar dute.

Sentimendu konplexu horiek aztertzeko, Canty eleberria kapitulu laburretan egituratzen du, banaketa koral batean oinarrituta. Pertsonaia ugari aurkezten dizkigu -gehienak emakumeak-, eta gehienak eleberrian gurutzatu egiten dira. Lanari nolabaiteko batasuna R.L.k ematen dio, berrogeita hamar urteko protagonistak. Pertsonaia deserritu ugari daude. Nera-bezaro galdua, lilura galduta duen alarguna, ezkontza hautsia eta gaixo terminala. Guztiek

ezaugarri bera dute. Nahastea. Duda-mudatan biz idira, labarraren mugan, haien buruari akatsa zein unetan egin zuten galdetuz. Inork ez du argi norantz doan. Iparrorratzirik gabeko pertsonak dira, haizeak mugitzen ditu, maitasuna eta laguntasuna behar dute. Baina, itxura guztien aurka, eleberriaren zaporea ez da mikatza. Edo, hobeto esanda, ez da mikatza bakarrik. Han, atzealdean, argia dago. Editoreak ondo dioen moduan, Canty "bigarren aukerei" buruzko eleberria idatzi du; beti gaude garaiz gure bizimoduei zentzua aurkitzeko.

Erreseñaren hasieran esan dugu zaila zela "Todo" lanaren argudioa azaltzea. Zinemaren laguntzaz egingo dugu. Eleberria irakurtzean behin eta berriro etortzen zitzaizkigun gogora "El reencuentro" filmeko eszenak. Baliteke lan horretaz gogoratzea. 1983an zuzendu zuen Lawrence Kasdanek. Berrogei urteko lagun talde baten istorioa kontatzen du. Haietako baten hiletan bat egiten dute eta iragana gogora ekartzen dute. Filmean Tom Berenger, William Hurt, Glenn Close eta Jeff Goldblum gaztetxoak agertzen ziren... Filmean, Kasdanek denboraren hondamenei, galdutako ilusioei, adiskidetasunari, sexu-erakarpinari, ambizioei... buruz hitz egiten digu. Azken finean, bizitza bera.

*"Los hombres inteligentes quieren aprender; los demás, enseñar".*

Antón Chéjov

## MUCHOS MATRIMONIOS



Egilea:  
**Sherwood Anderson**

Itzulpena:  
Laura Salas

Gallo Nero, 2012.  
261 or.; 19,00€

Literatura-lan baten balorazioa egin aurretik, testuinguruan sartu behar dugu. Noiz idatzi zuten jakin behar dugu, eta garai horrekin harremanetan jarri. Sormen narratibo guztiak gizarte- eta kultura-une jakin baten emaitzak dira. Irakurleak gaizki jokatu luke —eta kritikariak are okerrago— hori kontuan hartuko ez balu. Argazkilarien moduan jokatu beharko genuke. Begiena urrean agertzen den eszena baten aurrean, objektibo egokia hautatu, fokatu eta argazkia ateratzen dute. Badakite hala egingo ez balute argazkia deformatuta aterako litzatekeela.

Eleberri honekin antzeko zerbait gertatzen da. Aurretik enpatia ariketa bat egiten ez badugu eta joan den mendearen hasieran landa-inguruko Amerikako herri txiki bateko aurreiritziak imajinatzen ez baditugu, lana bere bidetik ateratzen zaigu eta foiletotxo itxura har dezake. Sherwood Anderson (1876-1941) leialtasunik ezaren gaia jorratzen du. Eta, testuingurua emanda, modu ausartean jorratzen duela esan dezakegu. Pertsona bat liberazioa bilatzera eramaten duten barrukoa hots saihestezinen indarra ulertzen ahalegintzen da.

Editoreek badakite testuinguruan sartzea oso garrantzitsua dela eta bete-betean asmatu dute eleberriaren hasieran F. Scott Fitzgerald 1923an "Muchos matrimonios" lanaren inguruan egindako erreseña batekin hasita. Garaiak zenbat aldatu diren ikusteko datu grafiko

bat agertzen da. Fitzgerald hain esaten zuen: "Egunero egunkarietan irakurtzen dut, aurretik abisurik egin gabe, negozio-gizon batek estenografoarekin ihes egin duela". Hau da, 20ko hamarkadan gizon desleiala egunkarietan ager zitekeen. Fitzgerald "Muchos matrimonios" lanaren inguruan dio guztiz antisoziala dela: "(...) bira harrigarri eta bitxia ematen du gizonaren eta emakumearen arteko harremanari buruz. Gizon sentikor eta zibilizatuak lizunkeriaren fenomenoaren aurrean duen erreakzioa da (...)".

Beraz, badakizue "Muchos matrimonios" lanaren gaia zein den. Gizon arrunt bati —arropagarbigailuen saltzailea, datu gehiago ematearren— sortzen zaion dilema morala idazkariak maitemintzen denean. Eleberriak eskandalua eragin zuen garai hartan. Esku artean dugun edizioan egilearen ohar bat agertzen da. Anderson bere burua zuzitzen du. "Estatu Batuetan eleberria gogor kritikatu dute, baina nik uste dut negu hartan istorio eder eta zintzoa idatzi nuela". Labur geratu da. Ederra eta zintzoa izateaz gain, denboraz kanpo dago. Izan ere, Anderson leialtasunik ezari buruz egiten dituen galderak, laurogeita hamar urte geroago, airean daude oraindik: "Ezkontzak bizitza osorako lotu nazake? (...) Zergatik da hain zaila zuretzat aterantz hiru pauso horiek ematea? (...) Zergatik egiten dizute dar-dar eskuek adineko batenak balira bezala?"



## LOS IDUS DE MARZO George Clooney

Ziurrenik, politikaren estolderietan oinarritutako film hau ez da zinematografiaren historia orokorrera igaroko, gaia ez baita berria (mugarik gabeko anbizioa, boterea edozein preziotan...), ez baitago aipatzeko moduko berrikuntza formal edo teknikorik, eta ezin baita esan urratzailea denik.

Thriller politiko moduan, bilbea eskasa dela esan dezakegu, azpigenero politikoko beste film batzuekin alderatuz gero, hala nola, "Todos los hombres del presidente" eta oraintsuko "Trece días".



Hala ere, film honen alde hitz egingo dut, aurrekariek ez bezala, politikaren zirrikituei eta estoldei buruz hitz egiten duten filmek ez daukaten zerbait du. Garratza da, mugarik gabeko azidotasuna du, eta mezua suntsitzailea da. Oso zaila da mezuarekin bat ez egitea.

Bete-beteen asmatzen du. Clooney azkarra da (hala erakutsi zuen "Buenos días, buenas noches" lanean) eta badaki non jo behar den, non egiten duen min. Edo, bestela esanda, badaki filmari beharrezkoak ez diren apaindurak kentzen mezua argi eta garbi iritsi dadin.

Estdadak, eskandaluak, boterearen erotika, neurririk gabeko anbizioa? Hori mila aldiz kontatu da, eta Clooneyri hori neurritz interesatzen zaio. Ez du planteamendu manikeorik egin nahi: funtsean guztiak berdinak dira, zintzoak (gutxi) eta "okerrak".

Berritzailea eta eskertzekoa da norbaitek kontatzea es-tortsio-egilea, lotsagabea eta moral zitalekoa izan arren, politikaren munduan bizirik iraun daitekeela (ia guztiok dakigu hori mende honetan).

Baina norbaitek akats bat egiten badu, txikia izan arren. Lerradura txiki bat, prentsara iristen den garrantzi gabeko elkarrizketa bat, politikari eskainitako urteak, gaztaroa, joan-etorriko adiskidetasunen gaztelu hauskorra... pikutara joan daitezke.

Mezu horrek egiten die min politikariei oro har. Horretan oinarritzen da filmaren uhertasuna. Bakuna dela pentsa dezakegun arren, dardo suntsitzaile hori disimulurik gabe ezkututzen du. Oroimen ahuleko masak eta aparatua guztia barkatzen dute, baina botoak galtzen ez diren neurrian.

Aktore handiak (Philip Seymour Hoffman, Paul Giamatti), beti asmatzen duten bigarren mailako aktoreak (esaterako Marisa Tomei), eta alfonbra gorritik oraintsu ibili diren beste batzuk (Ryan Gosling, "Drive" lana dela eta hemen aipatu duguna). Eta Clooney, beti Clooney, berarentzat papertxo bat izaten duena beti.

Azken bitxikeria bat: izenburuak Julio Zesarren heriotzari aipamen egiten dio: orakulu batek martxoan politikan egun beroak izango zituela iragarri zionean, Zesarrek barre egin zuen, eta guztiok dakigunez, erail eta garaitu egin zuten. Ezin dugu gehiago irakurri.

## EL ÍDOLO DE BARRO Joseph L. Mankiewicz

Erreseña honen hasieran esango bagenu (horrela hasiko gara) filmean boxeoa profesionalen zorigaitzoko bizi-moduaren irteera aurkitzen duen gizonaren gorakada eta beherakada kontatzen dela, hamarretik bederatzik ez lukete ikusiko, arrazoi osoz. 1949tik bilbe horren inguruan istorio gehiegi egin dira.



Baina akats handia egingo genuke. *Toro Salvaje* eta *Million Dollar Baby* argudio berera egindako hurbilketa oso desberdinak dira, eta biak oso onak dira. *El ídolo de barro* filmak itxura formalagoa izango luke, azken hiru hamarkadetan

egin diren azpiproduktu guztiarekin alderatuz gero.

Betikoan gaude: film bat ona denean, berdin da beisbolaren, billarraren (*El buscavidas*) edo dena delakoaren gainekoa izatea. Gidoia ona bada (Carl Foreman- *Solo ante el peligro*-), elkarrizketak adimentsuak badira, protagonista Kirk Douglas bada, bigarren mailako aktore bikainak badaude (hala nola Arthur Kennedy) eta musika Dimitri Tiomkinek konposatu badu, ezin da eta ez da gehiago eskatu behar. Hollywoodek makineria osoa produktu baten zerbitzura.

Filmak harrapatu egiten du, lehenengo eta behin, nor-tasuna duelako, ez da film hutsa. Protagonistaren harrotasuna oso ondo erretrataturik dago. Bizimodu errazak erakarri dezake, baina badaki zer den duintasuna. Hala ere, duintasun horretatik nahita aldentzen da une batzuetan.


Atsegina da gaur egungo filmetan erraz ikusten ez diren balioak aurkitzea. Adibidez, kontrolik gabeko amorrua, Kirkek pertsonaiei hain ondo gehitzen diena.

Zalantzarik gabe, Kirk Douglasen ohoretan egindako filma da. Protagonista moduan duen lehenengo film handia da. Hala ere, errealizadoreak inoiz ez ditu bigarren mailako aktoreak ahazten, guztiak oso ondo irudikatuta baitaude. Baliteke azken horien parte-hartzeak laburrak izatea, baina beharrezkoak dira beti.

Zinema beltza, drama, argazki apartak, kirolaren estoldetatik egindako ibilbidea (ordezkariak, eskrupulurik gabeko abokatuak, dirua usaintzen duten arrotzak...).

Zuzendariaren maisulana. Handik urte batzuetara boxearen inguruko beste film batekin ausartu zen, baina ez zuen arrakasta bera lortu: *Más dura será la caída*.

Zinema klasikoa bete-betean.



## HOT KNIVES – Idem



**Cd**  
**(Grown Up Wrong)**  
**14 abesti**

Banda ilun bat berreskuratuko dugu gaur. Ez da oso ezaguna, baina kalitate handia duenez eta The Flamin' Groovies handien musika-leinua-rekin lotura duenez, aldarrikatzeko modukoak dira. Hain zuzen ere, Groovies taldea 1971n eta 1973an utzi ondoren, hurrenez hurren, Tim Lynch eta Danny Mihm kideak (sorrerako kideak ziren, eta horiek taldeak maisulana grabatu zituen, hala nola "Flamingo" eta "Teenage Head") San Franciscoko talde berri batean elkarrekin agertu ziren, Hot Knives izeneko taldean. Taldea 1975. urtearen inguruan sortu zen, Michael Houptek eta Debbie ahizpak osatutako nukleoaren inguruan. Pensilvaniakoak ziren, eta Kaliforniara joan ziren mutila-neska ahots-joko mistoa buruan zutela (eredu horretan bete-betea asmatu zuen, adibidez, Jefferson Airplane taldeak).

Aurreko hamarkadaren amaierako Kaliforniako soinen eragin handia dute. Nolabaiteko dentsitate elektrikoarekin aberastutako folk-rocka egiten dute. Baina ez hori bakarrik. Country-rock musikara haien modura hurbildu ziren, eta jatorriak ez zituzten bistatik galdu, hirurogeiko hamarkadaren amaieran soinu zehatz bat egiten lagundu zuten taldeen abes-

tiak berreskuratuz, hala nola Moby Grape taldearenak, eta garage-nuggetseko taldeenak, hala nola The Knickerbockers.

Single pare bat bakarrik argitaratu zituzten, haiek editatuta, 76. urtean. Taldeak zuzeneko kontzertu ugari eskaintzen zituen San Francisco inguruko lokaletan. Apurka-apurka estudioetan sartzen ari ziren Lp oso batera biltzeko materiala grabatu asmoz. Baina inoiz ez zuten lortu kontratu diskografiko on bat, eta azkenean lehen diskoa argitaratu gabe geratu zen, eta gaur egunera arte artxibatuta egon da. Grown up Australiako etxeak cd batean berreskuratu du.

Ez dakigu asko bandaren amaierari buruz. Itxuraz, kideek proiektuan interesa galdu zuten eta kideek apurka-apurka taldea utzi zuten, ezin izan zituzten ordezkoak aurkitu eta aurrera jarraitu. Disko osoa bitxi bat da eta San Franciscoko rockaren historian bere lekua merezi du. Diskoa berreskuratzeak merezi zuen. Horrek eragiten duen gogoeta da ea zergatik izaten duten arrakasta banda batzuek eta beste batzuek zergatik ez diren nabarmentzen.

## ERNIE K DOE – Here Come The Girls



**2 Cd (Charly)**  
**49 abesti**

Ernest Kador, 2001eko uztailaren 5ean hil zen arte, New Orleansko musikako irudi sendoenetakoa izan zen. Ibilbidea berrogeita hamarrek hamarkadan abiatu zuen eta sari gehien hirurogeiko hamarkadan lortu zituen, Minit etxerako lan egiten ari zela. Ernie K Doeren izena hit batzuei ("Mother in law"), klasiko batzuei ("A certain girl" –gero The Yardbirds taldeak grabatu zuen–) eta, nola ez, musikako beste gizon handi bati, Allen Toussainti lotuta egongo da beti. Azken horrekin bitzta osoan lankidetzan aritu zen.

Charly etxe klasikoak urrezko aldiari eskainitako bilduma oso ona kaleratu berri du, prezio ekonomikoan gainera. Aukera paregabea da abesti esanguratsuenak eskuratzeko eta –sarrera moduan txikia baina behar den bestekoa den libreto bati esker– musikariaren ibilbidea ezagutzeko. Esan dugun moduan, New Orleansko musikako irudi handi bat. Azkenaldian hiri hori boladan dago berriro musikari dagokionez, telebistako "Treme" seriaren arrakastari esker. Artista turismo-erakargarria bihurtu zen hiria musika-espirituarekin bisitatzen zuten guztientzat, 1990etik Ernie K Doe's Mother in Law

Lounge lokala baitzuen eta bertan aldian-aldian aritzen baitzen.

Temak New Orleansko soinuaren prototipikoak dira, early soula rhythm & bluesarekin iragazita, oso dibertigarria eta dantzatzeko modukoa. Musika identifikatzeko modukoa izateko osagai guztiak ditu –pianoa agerian uneoro, apaingarririk gabeko ekoizpena–. Minit Recordsen editatu zuen ondare ia osoarekin batera, bilduma honetan Toussaintekin 1970ean Janus etxearentzat grabatutako Lpa osorik dago, baita etxe ezzagun batzuentzat (hala nola Instant eta Sansu) egindako saio batzuk ere. Inoiz ez zuen errepikatu benetako arrakastaren inpaktua –aipatutako "Mother-in-Law" (oso atsegina da Benny Spellmanen bigarrena hotsa berriro entzutea)–, baina horrek ez du esan nahi gainerako ekoizpen guztiek ez dutela interesik. Amaieran ere, gerora musika beltzak modu masiboan aterako zuena aurreratuz funk gogorrekarekin ausartu zenean, argi utzi zuen Toussaintekin zuen loturak, New Orleans eragina galtzen ari zenean, musikaren aldetik akatsik gabe jarraitzen zuela.



## “DIE TOTE STADT”

OLBEk bel cantoaren mundu zirrargarriari buruz gauzak irakasten egin dituen 60 denboralditan lehenengoz, opera-pedagogiarekin jarraituz, denboraldiko azkenaurreko izenburu moduan, Opera Lagunen Bilboko



Elkarteak XX. mendeko opera handietako bat taularatu du. Eslovakiako Erich Wolfgang Korngold konpositoreak sortu zuen eta 1929ko abenduaren 4an aldi berean estreinatu zen Hanburgon eta Colonian, arrakasta handiz gainera. Erregimen naziak debekatu egin zuen konpositorearen jatorri judua zela-eta. Konpositoreak Estatu Batuetara ihes egin zuen eta bi Oscar sari irabazi zituen filmetarako musika konposatuz. Konpositorearen partitura erabat ahaztu zen Bigarren Mundu Gerraren ondoren, baina oraintsu munduko opera-etxe nagusietan tartetxoa egin du.

Hiru ekitaldiko drama musikala da, Erich Korngolden musikarekin eta Paul Schotten libretoarekin alemanez (Julius Korngold konpositorearen aitaren izengoitia). Georges Rodenbachen Bruges-la-Morte eleberri laburrean oinarrituta dago. Lan hori Brujasen gertatzen da, XIX. mendearen amaieran. Eleberrian, “Paul” protagonistak hildako emaztearekin duen obsesioaren erretratu estatikoa da. Emaztea dantzari bat (“Marietta”) dela pentsatzen du, biek antz handia baitute. Dantzaria etxera gonbidatu, liluratu, eta azkenean, jarrera horrekin emaztearen oroimena errespetatzen ez duela ohartu ondoren, dantzaria ito egiten du hildako emaztearena zen txirikordak batekin. Une horretan protagonistak iragana behin betiko hobiratzen du, emaztearen heriotza onartzen du eta Brujasetik behin betiko aldentzen da.

Musikaren ikuspuntutik, partitura elektriko oso bizia da, musika oldartsua eta mingarria duena, batez ere protagonistak hildako emaztearen inguruan dituen aluzinazioen berri ematen denean. Bi maila antzematen dira: bata orkestrak menderatzen du, eta ikus-entzuleei kasuan kasuko balio emozionalak ematen zaizkio, eta bestea dramatikoa musikal da, eta ekintza bizkortzen du. Musikak “zinema ukitua du”, pasarte asko Hollywoodeko filmetako doinuak gogora ekartzen dituzte eta.

Pezoian, OLBEk debuta egin zuen Estatu Batuetako Erik Nielsen zuzendari gaztea. Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, lehen mailako musika-bertsioa zuzendu zuen, Korngolden orkestrazio aberatsa nagusi zela, zentzu dramatiko beteta eta ñabardura askorekin. Lan osoan eszenarekin oreka osasuntsu eta egokia mantentzea lortu zuen.

Vienako Operak eta Salzburgoko Jaialdiak egindako antzerki-koprodukzioa, Willy Deckerren eszena-zuzendaritzapean, gaueko gauzarik ikusgarriena izan zen. Eszenaratzeari hunkigarria, klaustrofobikoa eta liluragarria izan zen. Lanean ekintzarik ez egotea konpontzeko, bi plano sortu ziren: hildakoaren oroigarriak dituen logela-santutegia kolore beltz eta urdin ilunetan, eta agertokiaren atzealdeko espazioa, errealtatearen mundutik haluzinazioen mundura



igarotzeko aukera ematen duena. Argiztapena ekintzen osagarri bikaina izan zen, eta marko eszeniko moduan erabili zen etengabe. Prozesioaren eszena unerik onenetakoa izan zen.

Bakarlariet dagokienez, bi protagonista nagusiek ahots-bikote handia osatu zuten.

Ipar Amerikako Robert Dean Smith tenorrak "Paul" pertsonaiaren interpretazio handia egin zuen, ahots- eta aktore-eskakizun handiko papera. Ia etengabe eszenan egon behar du eta bakarlari izateko edo nabarmentzeko une garrantzitsurik izan gabe, gau handia izan zuen. Modu horretan erakutsi zuen garrantzitsuena ez dela nota bat edo esaldi bat ondo esatea, azken emaitza baino. Berak egindako lana oso egokia izan zen, kantu-edertasun handikoa, tinbre oso argitsua izan ez arren, argia eta kolore ederrekoa izan baitzen.

Emily Magee OLBEn debuta egin zuen soprano amerikarraren "Marie / Marietta" pertsonaia bikoitzak ahots-ahalmen eta ahalmen dramatiko handia erakutsi zuen. Altu perfektuak eta ahots bete eta afinatua erakutsi zuen. Bereziki aipagarria izan zen Mariettaren "Glück das mir verblieb" abestiaren interpretazioa.

Gainerako guztiak orekatuta eta elkarri ondo egokituta egin ziren, eta modu eraginkorrean

jardun zuten. OLBEn debuta egin zuten beste bi nabarmendu ziren, Finlandiako Tomi Hakala baritonoa "Rank/Fritz" pertsonaiaren interpretazioan, eta Alemaniako Christa Mayer mezzosopranoa, "Brigitta" pertsonaiaren interpretazio labur baina ederrean. Koruak ikuskizunaren kalitate orokorraren mailakoak izan ziren.

Laburbilduz, erronka izan da OLBerentzat ohiko erreperitorioetatik kanpo dagoen lan hau estreinatzea, musikaren aldetik erdipurdikoa izanda.

#### "Die Tote Stadt "

**Aktoreen zerrenda:** Emily Magee (s); Robert Dean Smith (t); Tommi Hakala (b); Christa Mayer (mzz); Marta Ubieta (s); Marisa Martins (mzz); Bilboko Operaren Abesbatza; Leioako Kantika Korala, Bilboko Orkestra Sinfonikoa; Eszena-zuzendaritza: Willy Decker; Musika-zuzendaritza: Erik Nielsen; Lekua, Euskalduna jauregia.



Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: [kultura@icasv-bilbao.com](mailto:kultura@icasv-bilbao.com)



Denuncias, Contratos, Divorcios, Hipotecas, Despidos, Accidentes,  
Reclamaciones, Arrendamientos, Jubilaciones, Herencias...

# Evítate dolores de cabeza



**Consulta con tu abogado/a**



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS  
DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN  
BAZKUN OHORETSUA**

THOMSON REUTERS

**ARANZADI**

# ¿QUIÉN DICE QUE A LOS **ABOGADOS** SÓLO NOS GUSTAN LOS TOCHOS?

**ARANZADI FORMACIÓN** E-LEARNING ofrece cursos exprés online para abordar cuestiones jurídicas actualizadas y específicas, aplicables en tu día a día. Rentabiliza tu tiempo gracias a la capacidad de síntesis y al riguroso análisis de los profesionales más prestigiosos en cada disciplina.

Excelencia Thomson Reuters Aranzadi,  
líder en formación jurídica.

125€/curso  
Oferta de  
lanzamiento  
10% dto.

¡INFÓRMATE! T. 902 444 144  
aranzadi.formacion@thomsonreuters.com  
[www.aranzadiformacion.es](http://www.aranzadiformacion.es)



THOMSON REUTERS